


DEFENSORAS

LURRAREKIN TAUPAKA







BEA APARICIO ETA MYRIAM CAMEROSEN ILUSTRAZIOEKIN

DEFENSORAS

LURRAREKIN TAUPAKA

LUMALTIK HERRIAK · BERDINAK CARA

Lehen edizioa: 2020, azaroa

Koordinatzailea:



Babeslea:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Koordinatzailea: Juana Canga (Lumaltik)

Ilustrazioak: Bea Aparicio y Myriam Cameros

Diseinua eta maketazioa: Iker Domínguez

Itzulpena: Joseba Urruticoechea

Elkarrizketak: Laura Ruiz (Lumaltik) y Jaime Schlittler (koman Iel)

www.defensoras.org

Eskerrak eman nahi dizkizuegu elkarrizketatuak izan zareten defendatzaile guztioi, zuon erakundeei eta liburu honetan parte hartu duzuen gainontzeko pertsona orori ere.

ISBN: 978-84-09-24407-2

Lege-gordailua: BI-1621-2020



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0)

Lan hau Creative Commons lizentziapean dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin. Nahastu edo eraldatu egiten bada, edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu. Ezin da lan honen lan eratorririk egin.

AURKIBIDEA

Aurkezpena Zer da esku artean dudan hau?	5
Nire kontzientzia feministaren ernatzea Nola izendatu nuen nire burua defendatzaile?	13
Biolentziak Zer-nolako eraginak dituzte gugan?	31
Alternatibak Nolatan eutsi genezake?	59
Zaintzak Autozainketa eta osatzeak	73
Ahizpatasun internazionalista Elkarrekin, itxaropena eta indarra gara	87
Amesten Dugun Mundua Sortzear dauden errealitate berriak	99
Gureak Diren Hitzak	113

AURKEZPENA

ZER DA

ESKU

ARTEAN

DUDAN HAU?

DEFENSORAS

LURRAREKIN TAUPAKA

Defensoras. Lurrarekin taupaka lan kolektibo baten emaitza da, Erdialdeko Amerikako emakume defendatzaileen hitzak eta bizierak gurerara ekartzeko helburuarekin egina; eta memoria feminista horren erakuntzan gure aletxoia ere jartzeko asmoz eginda dago.

Lumaltik Herriak, komunitate zapatisten autonomiaren eraikuntza prozesua bultzatzeko nahiarekin sortu zen. Egunerokotasuna erresistentzian bizi ohi duten komunitate indigenekin lan egiten hastean, eraso neoliberalen aurka lurraldearen defentsan emakumeek izan duten paperaren garrantziaz ohartzen joan gara apurka-apurka.

Berdinak Gara, inmigrazioaren inguruko hausnarketak eta auzokideen arteko lankidetzak sustatzen dituen Irala auzoko (Bilbo) kolektiboa da. Horrekin batera, Erdialdeko Amerikan eta Chiapasen izandako lurraldearen defentsa prozesuekin genuen harreman historikoa berriro ere berreskuratu nahi izan genuen.

Azken urteotan, Lumaltik eta Berdinak Gararen eskutik, nazioarteko zein tokian tokiko sare feministak sustatzearen aldeko apustua egin dugu. Horretarako, erakunde eta jatorri ezberdineko emakumeen arteko topaguneak sortu ditugu. Bertan emandako hausnarketen ondorioz, begiak parez pare ireki zaizkigu lurraldearen defentsak eragiten dituen arazoaren aurrean: gure gorputza bera dela lehiatzearen dagoen lehen esparrua; bertako herri originarioen jakituria eta haiek duten gorputzaren inguruko zaintza aintzat hartzea; eta, azkenik, guzti hau eskuragarria izatea pertsona ororentzat.

Marrazketa, idazketa, argazkilaritza edota bideogintzatik etorritako hainbat emakume eta kolektibo ezberdinen indarrak batzearen emaitza da honako liburu hau. Horretarako, 2019. urteko abuztuan bidai bat osatu genuen Chiapas, Guatemala, El Salvador eta Hondurasen barrena. Erdialdeko Amerikako hainbat hiri, mendi, herri edota komunitateetan zehar ibili ginen emakume, komunitate, herri indigenen eta LGTBIQ+ kolektiboen eskubideen defen-

datzaileak diren 30 emakume ezberdinen istorioak entzun eta jaso ahal izateko. Lurraren zaindariak dira.

Aktibistak, ikasleak, abokatuak, irakasleak, nekazariak... Beso zabalik hartu gintuzten haien etxeetan eta bizi duten egoera erakutsi ziguten: pairatzen duten indarkeria, defendatzaile izate hutsagatik bizi duten estigmatizazioa... Baina dituzten amets eta nahiak ere erakutsi zizkiguten, mundu berri eta justuago horren alde borrokatzera bultzatzen dituen. Etengabeko borrokari hauen adorea eta idealak asko miresten ditugu. Berta Cáceresen antzera, mundu hobe baten eraikuntzarako eredu diren emakumeak dira, alegia.

Entzute eta ikaste jarduera eder bat izan da. Itxaropena piztu dezakeen liburu bat bilakatzea espero dugu, aldaketa sozialak posible direla erakutsi dezakeena. Munduko eskualde ezberdinetako emakumeak nola eusten ari diren aurkezten dugu hemen, eraldaketa horren alde antolatzen eta erabat bidegabea den eredu kapitalista basati honen aurka egunero borrokan ari direnen testigantzak.

Liburu honekin sortu eta sendotu diren aliantza guztiak denboran zehar gorde daitezela espero dugu. Guztion artean, defendatzaileen lana eta eskubideak behin betiko aitortuak izatearen alde lanean ja-

rraituko dugu. **Defensoras. Lurrarekin taupaka** emakume horiei egindako gure omenaldi txikia da.



**“Zuk, bala duzu... Nik, ordea, hitza... Bala, hil egingo
da eztanda egitean... Hitzak, ordea, oihartzuna
dakar bere atzetik”**

BERTA CÁCERES





MEXIKO

HONDURAS

CHIAPAS

GUATEMALA

EL SALVADOR

MESOAMERIKA

CHIAPAS

- Claudia Vázquez** — Chiapaseko Emakumearen Eskubide Zentroko koordinatzailea
- María Díaz Gutiérrez** — Chiapaseko tseltal-ch'ol eskualdeko Congreso Nacional Indígenaren zinegotzia
- Elvira Madrid Romero** — Brigada Callejera elkarteko zuzendaria
- Ana María Ávila Rodríguez** — Brigada Callejera elkarteko kidea
- Susana** — Brigada Callejera elkarteko sustatzailea eta sexu langilea

GUATEMALA

- Stacy Velásquez** — OTRANS Reinas de la Noche erakundeko kidea
- Yamanik Cholotío** — Guatemalako Irrati Eskolen Elkarte
- Aura Lolita Chavez Ixcaquic** — K'iché Herriaren Kontseiluko kidea
- Marleny Concepción Ramírez Mencho** — Bakearen aldeko Emakume Indigenen Elkarte
- María Olga Coronado eta Francisca Carmen Aguilar Mejía** — Maya Ajchimol Garapen Osorako Elkarte eta San Marcoseko Mam Kontseiluko kideak

EL SALVADOR

- Marixela Ramos** — Radio Victoria irrati komunkatzailea
- Morena Herrera** — Emakumeen giza eskubideen defendatzailea
- Zuleyma Arauz** — Colectiva Feminista herri garapenerako erakundearen defendatzailea

HONDURAS

- Yasmin López** — CODIMCAko koordinatzailea
- Lesh eta Micaela** — Yo no quieroserviolada mugimenduko aktibistak
- Berta Zúñiga Cáceres** — COPINHeko koordinatzailea nagusia
- Catalina Hernández** — COPINHeko emakume sailaren koordinatzailea
- Rosa Santamaría** — Landa eremuko Langileen Sindikatu Nazionalen kidea
- Ligia Destephen** — Honduraseko Emakumearen Irakaskuntza Zentroko psikologoa
- Suyapa Martínez** — Honduraseko Emakumearen Irakaskuntza Zentroko koordinatzaile nagusia
- Kerlin Teresa Colón Martínez eta Carmen Isabel Álvarez Sabio** — Garífuna herriaren eskubide eta luraren defendatzaileak. Honduraseko Organización Fraternal Negra OFRANEH
- Aurelia Arsún eta Karen García** — Honduraseko Organización Fraternal Negra OFRANEH
- Tania María Iden** — NANIGU gazte erakundea, Honduraseko Organización Fraternal Negra OFRANEH erakundearen baitan

NIRE KONTZIENTZIA FEMINISTAREN ERNATZEA

NOLA IZENDATU

NUEN NIRE BURUA

DEFEN

DATZAILE?



SUYAPA MARTÍNEZ

HONDURAS

“Ikasleon eskubideen aldeko defendatzailea nintzen. Gero, 1990ean, erakunde honetan sartu nintzen eta honen baitan gure buruak feministatzat hartzen hasi ginen. Mugimendu sozialek borroka ezberdinak martxan jartzen ari zirela ohartu ginen, baina gure aldeko borroka ere bideratzen ari zela mugimenduaren baitan. Ikasle mugimendu horren parte nintzela, kideek sarritan nire eskubideak urratu zituzten, gizonezkoek eragindako jazarpen sexuala edota biolentzia ere pairatu dugu bertan. Haiek izan beharko lirateke gure lehen oinarria baina, bertan ere, patriarkatua dugu errotuta. Horregatik, sistema neoliberal huts honen aurka bideratuta egon beharko du gure borroka, patriarkatuaren isla baita. Nola lortu dezakegu gure anai-arrebek hain barneratua duten patriarkatu hori behingoz baztertzea? Hortaz, gure borroka, sistemaren kontra bideratua egongo da beti.”



MORENA HERRERA **EL SALVADOR**

“15 edo 16 urte inguru nituen gazte antolakunde mugimenduetan hasi nintzenean, oso gazte, beraz. Oinarrizko eliz komunitateetako parte ere banintzen. (...) edonondik heltzen zitzaizkigun sarraski hitza zuten albiste mordoa, Estatu edota Gobernuen ezintasuna zela eta, euren erantzun bakarra errepresio bortitza izan zen. (...) Esan bezala, nire heziketa erlijiosoa izan zen abiapuntua, batez ere Askapenaren Teologiarekin izandako harremanaren ondorioz. Eliza katolikoaren hierarkia eta doktrinarekin tirabirak izan ditut askotan, emakume eta pertsona ugari zapaltzen baititu. Hala ere, elizaren ikuspuntu humanista hori asko baloratzen dut.

Hortik aurrera nire jarrera erradikalizatzen hasi nintzen. (...) Azkenik, gerrillan sartu eta 10 urte eman nituen gerran. Garai hartan, nahiz eta nire erantzukizunak ez zeuden emakumeekin bakarrik lotuak, emakumeen erakunde baten sorrera bultzatzea lortu nuen. Onartzen dut ez zela haien eskubideengatik soilik, baizik eta bizi genuen prozesu iraultzaile horren baitan gure ekarpena handiagoa izan zedin. Nire hasierako kritika horrek harreman estua zuen sortzen eta indartzen hasia zen sentimendu feminista horrekin, ez zegoen soilik emakumeek genuen paperari bideratuta.

(...) Alderdiko nire kideek ez zuten ulertzen Las Dignassortu genuen emakume-talde horretan parte hartzearen zergatia, ez zuten onartzen planteatzen genuen autonomia eredia. Orduan, zailtasun horiek zirela eta, zerbaitek nire pentsatzeko modua aldatu egin zuen. 1990ean, maitasuna eta bizia emakumeon alde ematen jarraituko nuela erabaki nuen, gure eskubideak eta xedeak alde batera geratu ez zitezten. Egun hartatik aurrera nago hemen.”



YASMÍN LÓPEZ

HONDURAS

“Nekazal eremuan jaio nintzen 80ko hamarkadan, hortaz, mugimendua sustraie-tan barneratuta daramat txikitatik. Ama erakunde misto bateko kidea zen eta lur-rak berreskuratzeko prozesu batetik zetorren. Han jaio eta han hazi nintzen ni. Une hartan bertan gure erronka bakarra bizirautea zen. Herri honetan jasandako errepresioa historikoa izan da. Heriotz Es-kuadroiak genituen, estatu kolpearean ondorioz berriro ere berpiztu zirenak. Hon-durasen, giza eskubideen aldeko lehia oso zaila eta konplexua izan da historian zehar. Hala ere, mugimenduek ez dute borroka inoiz utziko.”

CATALINA HERNÁNDEZ

HONDURAS

“COPINH elkarteko sortzaileetako bat nauzue, El Salvadorreko mugalde inguruko herri batekoa. Bertako gerra pasata, gatazka ugari izan genituen armadaren jazarpena zela eta. Ni oso txikia nintzen garai hartan, baina El Salvador eta Honduraseko armaden errepresioak sortzen zituzten egoera latzak antzematen eta ikertzen hasia nintzen jada. Errepresioa ikaragarria zen: jendea etxetik indarrez atera, eraman, torturatu egiten zuten... asko ez ziren inoiz bueltatzen. Oso egoera gogorra izan zen hura, guztiz izututa mendian lo egiten, ihesian. Bengala argiak botatzen zituen armadak lehenbizi eta, jarraian, hegazkinen bonbardaketak zetozen.

Hori dela eta, lagunekin batzen hasi ginen. Gure eskualdean arazo bat zegoen zerrategiekin, ez zegoen egurraren gaineko inongo kontrolik eta baso-soiltze izugarria ematen ari zen. Basoa defendatzea helburua zuen mugimendu bat antolatzea pentsatu genuen hasiera batean. Apurka-apurka, komunitateak ere antolatu ziren eta zerrategien aurkako borroka bideratzen hasi ginen.”





BERTA ZÚÑIGA

HONDURAS

“Ni ia-ia COPINHen jaio nintzela esango nuke eta, hortaz, aspalditik parte hartu dut elkarteetan. Nire ama, gure kidea den Berta Cáceres, antolatzen diren emakume guztien antzera, seme-alabekin izaten zen bileretan ere. Orduan, nahiz eta gertatzen ari zenaren inguruan arreta handirik ez jarri, eztabaida ugari entzuten genituen. Berak eskatu zigun gure lencaherriaren borrokarekiko axolagabeak ez izatea. Haurrei bideratutako ekintzetan parte hartzen genuen: muralak egin, zinema solasaldietan egon, batzarrak egin... apurka-apurka antolatze prozesu horiek guztiak barnerratzen joan ginen.”

MICAELA

HONDURAS

“Unibertsitatean sartzean hasi nintzen ikasle mugimenduan aritzen. Nire ustez, behin espazio hauetan sakontzen hasita, duzun mundu-ikuskerara hori erabat aldatzen da. Zure munduaren eta berau osatzen duten elementuen ikuspegia aldatuz doa. Ikasle eta gizarte mugimenduek nire kontzientzia pizten lagundu zidaten.”



YAMANIK CHOLOTÍO

GUATEMALA

“Familia oso anitz batetik nator: nire ama pokomam indigena da eta nire aita, aldiz, tsutujil herritik dator. Ni hirian hazi nintzen eta nuen ametsik handiena irakurtzen ikastea zen. Irakurtzen hasi nintzenean, nire lehen liburua Mellamo Rigoberta Menchú y así nació la conciencia izan zen, Elizabeth Burgosek idatzia. Txikitatik errealitate horrekin topo egin nuen eta horrela, antolatze prozesuetan pentsatzen hasi nintzen. Diskriminazioaren eta arrazakeriaren zirkunstantziek eragin handia izan zuten nigan, noizbait nortasuna kenduko zidatela pentsatu nuen ere. Orduan, nire sustraietara bueltatu eta berreskuratu nituen, liburuei eta erakunde eta prozesu berberei esker. Apurka-apurka berriro antolatzen joan nintzen, familiaren laguntzarekin batera.”





MARIXELA

MARIXELA RAMOS EL SALVADOR

“Sekula ez nuke imajinatuko honenbeste barne indarririk nuenik, jarrera eta espazio berriak ezagutzeko aukera eskaini didana. Ni landa eremuko komunitate batetik etorritako emakume bat naiz. Nire ezagutza bakarra artoa edo babak ereitea dira, tortilak egitea... Betidanik emakumeoi egotzi zaizkigun horiek. Irratian lan egiteak beste ezagutza mota batzuetara heltzeko atak parez pare zabaldu dizkit. Lehenengoa, eta garrantzitsuena agian, emakume gisa dudan ahalmena onartzea. Emakumeon aniztasunaren baitan, elkarbanatu daitezten ahalmenak badaudela antzematea ere. Nire burua defendatzaile gisa onartu eta aitortzeko aukera eskaini dit. Haien eskubideen alde lanean dirauten emakume asko izan dira, baina ez dituzte euren buruak defendatzailetzat hartzen. Nire kasuan, Marixela bezala, komunikazio defendatzaile gisa aldarrikatzea suposatu du, modu berean defendatzaile komunitarioa ere naizen heinean.”

KERLIN TERESA COLÓN HONDURAS

“Txikitatik beti gustatu izan zait antolakuntza, beti egoten nintzen talde txikitan antolatuta gure komunitatean.

2015eko abenduan, Juan Orlando Hernández buru zela, Estatuak sarraski bortitza bideratu zuen Irionan, urteetako etengabeko giza eskubideen urraketekin jarraituz. Bi garifunagazte hil zituzten indar armatuek narkotrafikoaren aurkako gerra faltsuaren aitzakipean. Mutil horietako bat nire anaia zen, 19 urte zituen. Momentu hartan, OFRANEH berehala agertu zen. Gaur arte, burua gorde gabe ari da prozesu guztian zehar. Nire burua erakunde horrekin identifikatzen dut, hau da, gure interesen alde egiten duenarekin. Horixe da garifunaherriaren eguneroko borroka.”



**MARCHA DE LAS MUJERES NEGRAS
CONTRA EL RACISMO Y LA VIOLENCIA**



AURELIA ARSÚN

HONDURAS

“Talde ezberdinetan parte hartu izan dut betidanik gure komunitatean, kirol zein dantza taldeetan besteak beste. Halaber, gizon talde bat zuzentzen ibili nintzen zazpi urtez. Hortik aurrera, Patrona ezizenaz ezagutzen ninduten. Ondoren, nire komunitateko ibai-desbideratzearena gertatu zen. Gure aberastasun natural izugarria kapitalisten, botereen, sistema beraren eraginez bakarrik zapuzten dela ikustea oso mingarria da, erabat sumingarria. Oso erraz suntsitu dezakete ingurugiroa ondorioak kontuan hartu gabe. Norbera maitemindu egiten da, borroka beharrezkoa eta zuzena delako.”

TANIA MARÍA IDEN

HONDURAS

“2009ko estatu kolpearen ondorioz hasi nintzen ni borrokan, orduan piztu zitzaidan premiarik handiena. Garifunakomunitateetan zer gertatzen ari zen ezagutu nahi nuen, horrenbeste sufrimendu eta gure lurrak kentzearen zergatia ulertzeko, batik bat.”



ROSA SANTAMARÍA

HONDURAS

“10 urte daramatzat jada antolatze prozesuetan parte hartzen. Lehen, enpresa pribatu batean egiten nuen lan, baina inoiz ez zitzaidan bizimodu hori gustatu, ezin nuela horrela bizimodu horrekin jarraitu esaten nion behin eta berriro nire buruari, etxebizitza bat lortzeko aukerarik izan gabe, adibidez. Gainera, ama ezkongabea naiz eta beti bilatu behar izan ditut baliabi-deak nire kabuz aurrera egin ahal izateko.

Lana utzi ondoren, landa eremura joatea erabaki nuen. Nekazaritza talde batean parte hartzera gonbidatu ninduen pertsona batekin topo egin nuen. Berak azaldu zidan bertan nola antolatzen ziren eta, ondoren, lur zati bat emango zietela bertan lan egin ahal izateko, etxebizitza ere bertan eraikitzeko eskubidearekin. Oso modu apalean bai, baina zure etxea da azken finean. Guzti hori behar bezala

legeztatzeko borrokan ari ziren une horretan.



Lur sail horren premia zen baldintza nagusia, bai bizitzeko baita elikagaiak ekoizteko ere. Hori da erronka nagusia: elikadura subiranotasuna lortzea, egunerokotasunari aurrera egin ahal izateko nahikoa elikagai ekoizteko ahalmena izatea. Horretan trebatzen hasi ninduten. Hasieran arraro sentitzen nintzen, ez neukan ezer, soilik nire eskulanaz aurrera egin ahal izateko. Behin bizimodu horretan sartuta bizitza berri bat hasten da, etapa berri bat, non emakume gisa jasandako bortxaketa guztiez konaturatzen zaren.”



STACY VELÁZQUEZ

GUATEMALA

“Nire lankide bat, salvadortarra dena ere, erail zutenean hasi nintzen ni antolatzen. Sexu-indarkeriatik bizirik atera nintzelako ere hasi nintzen antolatzen. Hiru aldiz bor txatu ninduten, baina azken aldia bereziki gogorra izan zen. Nire buruari esan nion egoera horretatik edonola atera behar nuela, ez niregatik soilik, baizik eta atzetik zetozen kide guztiengatik ere. Orain arte, funtsezko aldaketak egitea lortu dut eta, nire ustez, emakumeon borrokek eta ahizpatasunak bakarrik ekarriko dituzte aldaketa sakonak.


(...) Nire borroka min kolektibo batetik abiatu zen, baina aldi berean indibiduala ere bazen. Erabat mintzen ninduen nire lagunak hil edota jipoituak izatea; adibidez, Paulina Marrot 2005ean Polizia Nazional Zibilak erail zuenean. Ni bertatik igaro nintzenean neska han zegoen, eta kale kantoira heltzean tiro batzuk entzun ziren. Paulina momentu hartan bertan desagertu zen. Izugarria da, baina hala zen, 80 eta 90eko hamarkadetan horrelakoa zen egoera. Lagun bat ikusten zenuen, musukatu, bersarkatu, larrua jo... eta bat-batean ez zen existitzen, betirako desagertzen zen. Orduan, zure buruari galdetzen diozu behin eta berriz: nola izan litekeen hori horrela? Erantzun bakarra: gorrotoa.”



LOLITA CHÁVEZ

GUATEMALA


“Feminista komunitarioa izendatzea prozesu oso luze eta konplexua izan da. Izan ere, ni k'iché hitzuna naiz eta nire hizkuntzan feminismo hitza berez ez da existitzen. Bai ordea errebeldia eta erresistentzia batzen dituen kontzeptu bat, gure amonen bizi indarraren pizgarria. Gure feminismoaren kontzeptuak barne indarrarekin du zerikusia, beste lurraldeetako feminismo anitz guzti horiekin ere bat egiten duena eta lurralde ezberdinetan moldatu egiten dena.”



LIGIA DESTEPHEN

HONDURAS

“Nire burua behingoz feministatzat hartzea ez da lan erreza izan. Emakumeon eskubideen aldeko prozesuetan parte hartzeak urrats handi bat suposatu zuen niretzat. Norbere inguru hurbilak pairatzen dituen bidegabekeriak antzematean, jokaera aldaketa zurruna ematen da norbanakoarengan nire ustez.”





MARÍA DÍAZ GUTIÉRREZ

CHIAPAS

“15 urte nituela, emakumeak diskriminatuak ginela ohartzen hasi nintzen, baita nire familian behin eta berriz ematen zela ere, esaterako. Orduan antzeman nuen komunitateetako emakumeek egoera berdinak pairatzen zituztela. Hor ikusi genuen antolatzearen beharra, irakurtzen eta idazten ikastearen beharra, eta horri ekin genion. Osasun sustatzaile izendatu ninduten eta hortik aurrera bidea egiten hasi ginen: oinetakoekin edo oinutsik, lokatzik egon edo ez... ikastaroak jasotzen genituen oinarritzko ezagutzak lortzeko, bizi ginen komunitateetan ez baitzegoen medikurik. Aukera hori eskaini zidaten niri, ikastaroak jaso eta horrela komunitateari ikasitakoarekin ekarpena egitea.

Alfabetatzean lan egiteko aukera ere eman zidaten, irakurtzen eta idazten ez zekiten emakume ugari baitzeuden. Orduan, liburu batzuk, arkatzak eta koadernoak eman zizkidaten emakumeen artean banatzeko, eta horrela hasi ginen elkartzen. Orduan zehatu zen kolektiboaren lana: guk, emakumeok, dirua edota oiloak zaintzen genituen eta, ondoren, arrautzak eta artoa saltzen genuen trukean. Momentu hartan piztu zen nire lanerako gogoa.”





ZULEYMA ARAUZ

EL SALVADOR

“Onartu behar dut nire lehenengo bilera toki eder batean izan zela, janari askorekin eta, horrekin, erabat erakarri ninduten. (...) Orduan, abortuaren despenalizazioarekin hasi ziren eta mahai-inguru bat egin genuen. Ni erabat katolikoa nintzen nire une hartan, oraindik ere katekista nintzela esango nuke, eta horren kontra nengoen. Pentsatu nuen: “Ez naiz sekula itzuliko”. Etxera iristean amari esan nion: “Ama, sinets dezakezu abortuaz eta haurdun geratu den 9 urteko neskatok batez ari zirela?”. Dena bere horretan gogoratzen dut. “... eta abortatu egin behar zuela. Nola sinetsiko duzu? Jainkoak nahi duena izan dadila”. Orduan amak, inolako prestakuntza feministarik ez zuenak, arreta handiz entzun zuen dena eta isilune baten ondoren esan zidan: “Nik ez nuke horren ondorioz biloba bat eduki nahiko, hau da, bortxaketa baten ondorioz”. Amak argi ikusi zuen bortxaketa baten ondorioz zuzena zela. Hitz horiek erabat hunkigarriak egin zitzaizkidan, eta elkarteari bigarren aukera bat ematea pentsatu nuen. Hortik aurrera gauzak beste modu batera ikusten hasi nintzen, feminismoaren inguruan gehiago irakurtzen hasi nintzen, abortuaren penalizazioari buruz eta baita emakumeen giza eskubideen urraketen inguruan ere. Denbora asko behar izan nuen nire pentsamendua erabat aldatzeko, prozesu oso bat izan zen.

(...) Oso aldaketa handia eman da nire baitan, defendatzaileak ezagutzen joan naizen heinean. Gauza asko egin banituen ere, ez nuen inoiz antzeman giza eskubideen defentsan lanean nintzela. Hasiera bateko Zuleymak balio hori izan zezakeen arren, nik uste ez zekiela beste kideekin batera egon zitekeenik erronka honetan, ez zuen oinarririk eskubideei buruz aritzeko. Ahal-duntze prozesu batetik ikasten joan nintzen, gainontzekoei laguntzeko ahalmena ezagutaraziz.”



CLAUDIA VÁZQUEZ

CHIAPAS

“Nire anai-arrebek aurrera atera dituzten prozesuak eta bakoitzak duen indarra ezagutzeko aukera izan dut. Gu, defendatzaile gisa, gure eguneroko bizitzan gainditu beharreko zailtasunek, eta gorabehera horiei guztiei aurre egiteak, guztiz indartu egiten gaitu. Ikaskide batek, erakutsi eta inposatu dizkigun eredu kultural horiek guztiak zalantzan jartzen eta hausten hasia dela ikusten dudanean, jarrera aldaketa horiek ikusten dituzunean, pentsatzen duzu: “Ahaleginak balio izan du”. Lankide bat bere kabuz salaketa bat jartzera auzartzea, edota bera defendatzaile bilakatu izana eta orain beste prozesu batzuk bul-tzatzea, horrek erabat asetu egiten zaitu.”



BIOLENTZIAK

ZER-NOLAKO

ERAGINA

—DITUZTE—

GUGAN?

GORPUTZ ETA IDENTITATE EZ-BINARIOEN AURKAKO INDARKERIAK

ANA MARÍA ÁVILA RODRÍGUEZ

CHIAPAS

“Oso mingarriak dira lankideek bizi dituzten egoerak, jipoitu eta ondoren hoteletan botata uzten dituztelako, esaterako. Behin, neska bat laguntza eske ari zen, baina ez zitzaion inor hurbildu, ezta polizia bera ere. Orduan, etorkinen fiskaltzara jo genuen, neska guatemalarra zelako, baina han ere ez zuten artatu nahi izan, edanda zegoela argudiatuta. Beste batean, lagun bat hil zuten hotel batean. Bideo-kameren grabaketa eta froga guztiak edukita, eta hala ere neska hil zuen pertsona ezin harrapatu... ez da legezkoa. Agintariak iritsi zirenean, laguntza eskaini beharrean, bideoak ezabatzen hasi ziren. Jakin badakite norekin sartu zen neska eta nork hil zuen, baina agintariek ez dute ezer egin gaur arte. Hilda dago, lurperatu dute, eta bera-rekin batera, kasua.”



SUYAPA MARTÍNEZ

HONDURAS

“Estatu kolpea baino lehen, Hondurasen, feminizidioen urteko batez bestekoa 220 ingurukoa zen eta kolpeaz geroztik kopuru hori 485era igo da. Hamar urtetan, 4800 emakume baino gehiago erail dituzte herrialde honetan. Epaitzen diren kasuetatik, soilik %31k lortzen dute aurrera ateratzea; 2017an 389 emakume izan ziren eta 2018an 380. Bi urte hauetan, 11 kasu soilik epaitu zituzten feminizidiotzat hartuta.

Herrialde honetan, emakumeen aurkako krimenen %96 baino gehiago zigorgabetasun osoan daude. Kasu aipagarrienen artean, Margarita Murillo nekazariaren hilketa dago, duela 6 urte baino gehiago gertatu zena, eta baita Berta Caceresena ere. Azken honen kasuak aurrera egitea lortu du, baina Margarita Murillorenak zigorrik gabe dago oraindik ere. 2016. urteko kasu batean, Gracias a Dios herrixkakoko neskatxa bat bortxatu eta akatu zuten. Hala ere, espediente hau, desagertu egin da. Jakin dugunez, txostena Ikerketa Kriminalerako Agentzia Teknikora bidali bazen ere, bertan ez zen inoiz jaso. Polizia bat dago hilketarekin harremanatuta eta, beraz, erraza da kontuaren nondik norakoak zeintzuk diren jakitea. Poliziak edo boteredunak tartean daudenean, espediente asko desagertu edo estali egiten dira.

Beste kasu batean, Santa María de la Paz izeneko herrian, gizonetzko batek bere bikotea hil zuen. Bortxatu eta gero, berekin ezkontzera behartu zuten eta, azkenean, bere semearen aurrean erail zuen. Gizonaren familiak abokatu bat ordaindu eta aske utzi zuten. Kasu hau inpunitate horren eredu argia dugu, gizona libre geratu baitzen eta ez zutelako kondenatu, bera errugabea zela argudiatuz. Kasua nazioarteko epaitegietara eramatea da orain dugun aukera bakarra.

Herrialde hau txirotasunak menperatzen du, %68 baino gehiagora ere heltzen dena, eta etxeko lanen herena emakumezkoen eskuetan dago. Auzo guztiak marak eta talde biolentoek kontrolatzen dituzte, neskatxak trebatuz, eta ondoren, pandilero hauen bikote bilakatzeko edota bandera gisa aritzeko (poliziaren salatariak), baita droga saltzeko ere. Tresna hutsak bilakatzen dira. Euren kontrolpeko eremu horietan manipulatu dituzte, eta jada balioa galtzen dutenean edo mara osoko kideek bortxatu dituztenean, akatu egiten dituzte. Horregatik sortu dira azken egunetan ikusten ari garen karabana pila horiek iparralderako bidean. Marek mehatxatu dituzten neskak dira orokorrean. Amek seme-alabak babestu nahi dituzte eta horretarako, nahiz eta bortxaketa,


bahiketa edota heriotzaren arriskuari aurre egin behar izan, migrazio-bide hauetan sartzera arriskatzten dira. Hemen geratzea baino, nahiago izaten dute karabana horietan bizitza arriskatzea.

Gure lana sustatzaileak heztea da, baina markak mehatxatu egiten dituzte hauek eta migratzaileen karabanetan sartzen dira ihesean ere. Behin mugan daudenean, guri deitzen digute laguntza eske, Mexikon eta Guatemalan ezagutzen ditugun gobernu kanpoko erakundeekin kontaktuan jartzeko. Egoera oso larria izaten hasi da eta gero eta gehiago estutzen hasi dira, Mexiko migrazio-kontrol gehiago egiten ari baita maila guztietan eta Guatemala gauza berarekin ere hasia da. Guk, sarritan diogu, soilik barneko joan-etorrietara murriztuko garen herrialdea bilakatuko garela, baina arazoa da hau ere ezingo dugula egin, tamalez.”



SUSANA CHIAPAS

“Une oso txarrak pasatu ditugu, hemen bildu garen guztion antzera, alegia. Hemen bizi garen gehienok ditugu gure familiak han eta dirua hara bidaltzea da gure erronka nagusia. Gure herrialdean sufritzen ari garen guztia kontuan hartuta, nire ustez erabaki egokia izan da hona etorri izana. Mexikarrak oso onak dira, nahiz eta batzuetan esan mexikarrek ez gaituztela maite. “Urdangei ez zaizue ordainsaria irabaztea ezer kostatzen”, diote askok lagunartean. Baina gauzak ez dira horrela, gure lana oso gogorra da. Lan hau emakume auzartentzat soilik egina dago.”



CLAUDIA VÁZQUEZ CHIAPAS

“Kasu gehienetan, feminizidioak eta hiltzaileak libre geratzen dira. Sistema patriarkal batean bizi gara, emakume gisa behin eta berriz isilarazi nahi gaituena, erabat mehatxatu eta beldurtu nahi gaituena gure eskubideak aitortzearen aldeko ahotsa altxatu ez dezagun.”



MICAELA HONDURAS

“Catrachas elkarteari esker Vicky Hernandezen transfemizidioa lantzeko aukera izan nuen. Bertan, emakumeok, gure aniztasun eta kolektibitateak abiatuta, antolatuta dugun indarra antzeman nuen. Barne indar hau lau haizeetara zabaltzea ezinbesteko ekintza da, edonon izanda ere entzun gaitzaten. Izan ere, hemen, Hondurasen, ezin gara bizi, existitu baizik. Existitu hitza erabiltzen dugu jaiki eta kalera irteteko beldur garelako, bortxatu egin gaitzaketelako, eraso egin gaitzaketelako, ukitu egin gaitzaketelako, jazarri egin gaitzaketelako. Behin etxera iristean, berriro ere bizi zara, egun osoan biziraun duzulako, estres guzti hori gainditu duzulako beste behin ere.”

STACY VELÁZQUEZ

GUATEMALA

“GIBaren epidemiak eragin larria du gure artean. Hildakoen %4a GIBak eragindako gaixotasun baten ondorio dira. CeDoSTAL-Cek burututako Esperando a la muerte eta Basta de Genocidio Trans txostenen arabera, trans emakumeek Guatemalan bizi duten indarkeria egoera islatzen dutenak, hauen bizi-itxaropena 33 urtekoa da. Azpimarratu beharra dago, halaber, 2016an dokumentazio lan hau egiten hasi ginenetik, ez dela urteko gorroto krimenen kopurua 12tik behera jaitsi. Horietako 5 osasun-sistemak berak eragindako laxokeriak izan baziren ere.

Trans kideen %58k ez zuen Lehen Hezkuntza amaitu, eta soilik %13ak amaitu zuen Bigarren Hezkuntza. Heterosexual zein CIS pertsonak, hezkuntza-maila horiekin, lana aurkitzeko gai dira, baina trans kideek, ordea, ez dute inolako lanik lortzen. Horrek %78k sexu-lanetan aritzearekin zerikusi handia du. Hala ere, nahiz eta beste batzuek banana lantegietan lan egin, esplotazio bortitza jasan behar izaten dute eta lan bikoitza burutu onartuak izateko. Egoera bera ematen da kafe plantazioetan lan egiten dutenekin. Pertsona heterosexual bati 25 quetzal ordaintzen badizkiote pisu zehatz baten truke, trans lankide bati 12 quetzal ordainduko dizkiote lan berberagatik. Hori diskriminazio hutsa da.”



LESH

HONDURAS

“Gaur, emakume izanagatik matxismoa pairatzen dugu, indigenak izate hutsagatik arrazakeria eta, gazteak garen heinean aldiz, gizarte heldu-zentristabatean bizi gara. Errebelde izateko gai den gazteriareneskutik soilik izango dugu etorkizuna. Inolako beldurrik gabe, libre izan nahi dut, aurreiritzirik gabe.”




DEFENDATZAILEEN KONTRAKO INDARKERIAK

CATALINA HERNÁNDEZ

HONDURAS

“Gobernua bera ere gure kontra dago eta gaizki tratatzen gaitu, gure herrien garapenaren aurka gaudela egotzita. Esku hartu nahi duten kanpo enpresa horiekin datoz, komunitateen garapena sustatuko dutela lau haizetara zabalduz. Baina guk argi daukagu hori ez dela garapena. Egiten ari direna erabateko iruzurra da, gezur hutsa, negozio bila daude eta basoa ustiatu baino ez dute nahi, etekin ekonomikoa lortzeko asmoz.

(...) Presa bat eraikitzeak onura dakarrela esaten digute. Baina, zer-nolako mesedea egingo digu horrek guri? Bat ere ez, irabaziak enpresentzat eta gobernuarentzat izango dira beti. Gure etxeetatik baztertu edo kanporatzen gaituzte, indarrez ibai ertzetan dauden lur guztiak bereganatzeko. Behin eta berriz errepikatzen dizkigute gezur berberak: gure onurarako izango dela, argia doakoa izango dela... dena gezurra. Ahoa bete baino ez zaie egiten. Antolaketa-borroka, prestakuntza eta borrokan aritu diren beste erakunde batzuekin izan ditugun esperientzien arabera, argi daukagu horrelakoak guztia gezur hutsa direla.”



YASMÍN LÓPEZ

HONDURAS

“Egungo emakumeon borroka oso zaila da. (...) 8 mila emakume baino gehiago erail dituzte estatu-kolpearen ondoren, oraindik ere inpunitate osoz mantentzen direnak. Ez soilik Bertaren kasua, jada oso ezaguna bilakatu dena, eta guk betirako gure bihotzetan eramango duguna. Gure kide askok oso momentu gogorak igaro behar izan dituzte, militarrek iritsi eta indarrez kaleratuak izan baitira. Kartzeletako ziegetan abortua izan duten lagunen kasuak ere izan ditugu, armadak egiten duen erreprezio basatiaren ondorioz. Desagertu diren lagunak baditugu ere, handik egun edo hilabete batzuetara hilak agertu direnak. Zaila da aurrera egitea.”

BERTA ZÚÑIGA

HONDURAS

“Amaren eraikitaren ondorioz, sarriago elkartzen hasi ginen, batez ere harentzat justizia eskatzeko. Hala ere, bagenekien herri honetan justizia eskatzea erronka oso gogorra izango zela, hainbeste pertsona erail eta hilketak isilpean dituen herrialde bat bilakatu baikara. Beraz, COPINHeK ere prozesuan laguntzearen aldeko apustua egiten du, justizia ekintzarik handiena hori izan dadin: Bertak hasitako antolaketa eta proiektu politikoarekin jarraitzea.”



LIGIA DESTEPHEN HONDURAS

“Emakumeon eskubideen alde aurrerapausoak egiteko ez dagoela inolako interesik antzematen dugu, eta are gutxiago sexu eta ugalketa eskubideez ari bagara. Gero eta neska gazteagoak izaten ari dira bortxatuak: 10-14 urte bitartekoak dira biktima nagusiak, 0-9 urtekoak ondorengoak eta, azkenik, 24 urtetik gorakoak ditugu. Nahiz eta dena ez argitaratu, urtero 3 mila sexu indarkeria salaketa daude. Hori gutxiengoa dela jakin badakigu, izan ere herrialde barnealdeko emakume askok ez dute inolako salaketarik aurkezten. Kasu horietan, % 95eko inpunitate tasara helduko ginateke. Orduan, nork egin nahiko dio aurre salaketa batek dakarren guztiari; estatuaren partetik inolako erantzunik ez baldin badago?”

ZULEYMA ARAUZ EL SALVADOR


“Tamalez, eskubideen aurkako taldeak ere baditugu, defendatzaileen lana zapuzten saiatzen direnak, giza eskubideen alde lanean diharduten emakumeen irudi publikoa hondatu eta kriminaltzat hartu ditzaten. Eraso hauek edozein lekutatik datoz gaur egun: familiatik bertatik, sare soziale-tatik, eskubideen aurkako taldeetatik etab. Hala ere, ez dugu borrokan etsiko, horretan gaude. Gure segurtasun neurriak hartzen ditugu: ez dugu non gauden esaten, telefonoz hitz-gakoen bitartez ere aritzen ikasi dugu, ibilbide desberdinak egiten ditugu edota konfiantzazko pertsona bat dugu betiere non gauden dakiena. Kontu handiz ibili behar gara, baina badakigu hori ere gure lanaren ezinbesteko baldintza dela. Defendatzaile izatea ez da lan soil bat, bizimodu oso bat baizik. Deitu nazate-la sorgin, feminazi, edo gauza okerragoak, baina dagoeneko ez dut nire bizitza defendatzaile edo feminista ez izanda ulertzen, nire parte ordezkazkina bilakatu da jada.”



MICAELA HONDURAS

“Yo no quieroserviolada kolektiboaren sorrera emakume gazteek bizi ohi duten ezinegonaren ondorio zuzena izan da. Haserretzen hasiak gara eta argi eta ozen oihukatu nahi dugu emakumeak nazkatuta gaudela gure bizitzako esparru guztietan jaso behar izaten dugun indarkeriaz. Bortxaketa ikuspegi ezberdinetatik hartuz eta indarkeria sexuala erabat interseksionala den neurrian, gure banakotasuna asko areagotu egiten da. Garrantzitsua da nola identifikatzen dugun gure burua subjektu edo izaki politiko gisa, eta non kokatzen garen gure identitate eta hautuak kontutan hartuta.

Iaz, medikuntza ikasle bat hil zuten autobus batean bortxatzen ez uzteagatik. Hau izan zen abiapuntua. Gero, lankide bat bortxatu zuten egun argitan, iparraldeko unibertsitateko komunetako batean, San Pedro Sulan, hain zuzen ere. Hori guztia gertatzean, “aski da!” oihukatu behar izan genuen. Gu bortxatzen ari dira guztion ikusgai eta inork ez du ahotsa altxatzen. Indarkeriaren normalizazioagatik heldu ginen hona.”



“Abortua despenalizatzeko borroka mailakatu izan da. 2009ko Honduraseko estatu kolpean, hiru gertaera nagusi eman ziren, onartu ezin ditzakegunak. Lehenik, biolentzia eta heriotza tasak gailur historiko batera ailegatu ziren, non hilketak eta suizidioak erabateko igoera izan zuten, inoiz ez bezalakoak. Adibidez, estatu kolpean hildako kasua transfeminizidio bat izan zen, LGBT eskubideen aldeko sexu langile bat hain zuten. Ondoren, biolentzia areagotu zen eta legez kanpoko etxeratze-aginduak ere eman ziren, betiere gertatzen ari zeneren ikusezintasun osoarekin nazioarte mailan. Bestalde, pilula antisorgailuak eskuratzeko aukera ere murriztu egin zen, ministerio-dekretu bidez zigortu egin zena. Horren ondorioz, osasun eta hezkuntza arloen oinarritzko eskubideen atzerakada izugarria eman zen. Azkenik, garai batean ezkutuan egon ziren figura politiko horiek boterea eta erabakiak hartzearen rola estatuaren egituraren barnean bereganatzen zutela antzematen zen. Orduan, boterean dauden lagunei onura eskaintzeko bideratutako erabakiak abian jarri ziren ustelkeriaren ondorioz eta, gure kasuan, legedia askoz zorrotzagoa bilakatu zen. 2012ko zigor kode berriarekin, tipo penalak aldatzen hasi ziren, gai jakin batzuetarako zigorrak murriztuz eta, bereziki, feminizidioengatik eta gorroto-krimenen-

gatik jasandako zigorrak deuseztatzen hasi ziren. 2016 eta 2017. urteetan, Hondurasen, abortua guztiz zigortzea erabaki zen, hamar urtetik gorako kartzela zigorrak ere inposatuz. Beraz, honek, behin betiko kaitea ixtea suposatu du. Izan ere, Honduraseko emakumeok, bisexualak, transexualak edota lesbianak izanda ere, ezin ditugu ez pilula antisorgailuak, ezta heziketa sexual integrala jaso. Sexu heziketan landutako testuliburuak elizak berak zuzendutakoak dira, non dena erabat zuzendu zen gutzia abstinentziaren menpean gera zedin.

Atzo, 7 urteko neskatxa bat bortxatu eta hil zuten San Lorenzo herrian; duela 3 hilabete, haurdun zegoen 9 urteko neska bat ospitalera eraman behar izan zuten hemen, La Esperanza, arrisku handiko haurdunaldia zuelako... burutzen ari diren ekintza guzti horiek emakumeen ezinogonaren ondorio direla antzematen ari gara, eta baita egora lehertzen hasia dela. Egungo testuinguru honetan, non narko-estatu bat bilakatu garen, zigorgabetasun osoa dago emakumeon aurkako indarkeriarekiko, hauek sexu-indarkeria, protestarako eskubidea ala abortua direlarik. Gu preso sartzen gaituzte haurra hilda jaiotzen bada, errua guri leporatuz. Arrisku handiko haurdunaldia dela leporatuta, eta nire bizitza arriskuan jartzen duela

aitzakiaz hartuta, gu hil gaitezen nahia-
go dute abortuarekin aurrera jarraitzea
baino. Jainkoaren erabakia aldarrikatuz,
erditzea betebeharra bilakatzen da, nahiz
eta horretarako zure bizitza arriskuan ja-
rri, dena sistema kapitalista honek aurrera
jarraitu dezan. Ezin dugu antisorgailu bat
loritu lesbiana izateagatik hamabi gizonen
bortxatzen bazaituzte ere. Trans gizonen-
koa izanda, eta bortxatua izan bazara ere,
ezin izango duzu pilularik eskuratu bagi-
narekin jaio zinelako, eta zure errua izan
zelako sexuz aldatzea, zure betebeharra
emakumezkoa izatea baitzen.

Hondurasen, 2009az geroztik, indarkeria
areagotu egin da genero orotariko popula-
zioarentzat, gorputz disidenteentzat. Cat-
trachasLésbica sareko indarkeria herio-
tzaren behatokiak erakutsi digu krisi sozial
eta politikoko testuinguruetan erailketak
areagotu egiten direla, eta askotariko sexu
hautuek gorroto-krimen hauen biktimak
direla. Aurten, guztira, 26 heriotza bortitz
izan dira. Orokorrean, transexualen hilke-
tak oso krimen sinbolikoak izan ohi dira.
Orain dela egun gutxi batzuk, lagun bat
zatitu zuten egin zuten hil eta gero. Sexu
langileak diren trans lankideek ez dutela
inongo segurtasunik antzeman dugu, Esta-
tuarentzat ez baitute inolako aitopenik.”





MORENA HERRERA

EL SALVADOR

“Zigor eredarriak ezartzeko legedia propioa garatu dute El Salvadorren, pobrezian bizi diren emakume gazteak aintzat hartzen dituen, abortuak euren kabuz egin ez ditzaten. Gainera, bat-bateko erditzeak jasan behar izaten dituzte askotan, ospitaletatik urrun, euren etxebizitzetan, komunitan edota ukuiluetan izaten direnak sarri. Ospitaletara heltzean, odolustuta heltzen dira asko, zauri eta odol emarien ondorioz, shock egoeran. Laguntza eske datoz erietxe publikoetara, pertsona po-breake soilik datozenetara. Heltzean, egiten dieten lehengo gauza abortuaren gaineko arreta eta ikerketa protokoloa aplikatzea da. Hau egin eta berehala fiskaltza edota poliziaren esku uzten dituzte, eta azken horiek lehenengo 24 orduetan atxilotu behar dituzte. Horregatik bilurtuta ikusi ditugu sarritan emakume gazteak esku-ohetara.

Fiskaltza ikerketarekin hasten denean eta aste gutxiko abortua ez dela ikusten duenean, emakumeen erruduntasun eza aitortu dezaketen ikerketak aurrera eramanean beharrean, delitu mota aldatu egiten dute eta abortuaz akusatu ez ezik, hilketa leporatzen zaie zuzenean. Akusazio horrek ondorio oso larriak dakartza, erabat neurritz kanpoko zigorrak ezarriz: 30, 35 edota 40 urterainokoak izan daitezkeenak.

Prozesu judizial hauek ere oso maneiatuak daude gehienetan, emakumeen errugabetasun-presuntzioa ez da batere bermatzen, Errepublikako Prokuradoretza Nagusiaren defentsa oso eskasa da eta emakumeek askotan ez dute ulertzen zer gertatu zaien eta zergatik ari diren horri aurre egiten.

(...) 2009. urtean Agrupación Ciudadana por la Despenalización del Aborto herri ekimenaren sorrera bideratu genuen, eta geroztik 42 emakume kartzelatik ateratzea lortu dugu, Evelyn Hernandez azkena izanik. Pozik gauden arren, oraindik 16 emakume gehiago daude kartzela zigorra betetzen. Hauen ordezkari bilakatu gara eta guztiek askatasun osoa lortu arte borrokan jarraitzea erabaki dugu. Ospitalek behin betikoz emakumeak salatzeari uztea nahi dugu, hau ez da batere erraza izango, oraindik salaketak egon badaudelako.”



“Une honetan bertan erresistentzia ekin-tza askori egin behar diegu aurre, lorpenen eta aurrerapenen aurrean indarberritutako eraso kontserbadorea pairatzen ari gara. Ez da ofentsiba leuna, tokian-tokikoa, baizik eta artikulazio globala duena eta, nire ustez, oso garrantzitsua da eraberritze kontserbadorearen ofentsiba horrek duen izaera globala ikustea, hemendik haratago miatzeko gai izatea.

Nik honako hipotesia dut: sektore kontserbadore hauek, Berlingo Harresia erorita eta berarekin batera mundu sozialista ere nolabait desagertzean, etsaia erabat lausotu zitzairen eta arerio hauen behar sutua dute kohesionatzeko. Etsai hau emakumeen borrokan, borroka

feministetan edota sexu-disidentzietatik abiatutako borroketan aurkitu dute gaur egun, hauen aurrean kohesionatu eta indartu egin dira berriro ere. Ez dut uste emakumeen gorputz edota ugalketa eskubideak kontrolpean izateko bakarrik egiten dutenik, baizik eta heterosexualak zein beste sexu hautuak dituztenak kontrolatzeko ere. Gizarte osoak inposatutako kontrol hutsa da. Nire aburuz, ez dute soilik gu zapaltzeko egiten, emakumeen eta sexu-disidentzien gaineko kontrol ideologiko eta sozial hori, gizarte osoaren kontrol-mekanismo bat da. Nahitaezko garrantzia du kontrol hori zein mekanismoren bidez egiten ari diren azaltzea eta gainera, zer-nolako arriskuak dituen. Gaur egungo egoera honek kontrola, botere instituzional eta politikoa lortzeko estrategia zehatzak ditu, eta oso kaltegarriak izan daitezke zenbait gizarteetan.”

LURRAREN ETA LURRALDEAREN AURKAKO INDARKERIAK

LOLITA CHÁVEZ

GUATEMALA

“Urak arima propioa du guretzat, bere bidea du, eskubideak ditu, inspirazio iturri ere bada, indar gune eta espazioak ditu, aldarrikapen propioak... Beraz, ezin dugu ulertu nola haren jabe edo maisu aldarrikatu nahi den pertsonarik dagoen oraindik ere. Bere burua gauza ororen jabetzat hartzen duten pertsonak badaude, gainontzeko pertsonen jabe ere aldarrikatzen diren pertsonak topatu izan ditugu herrietan. Hauen nagusitasunak desberdintasun larriak sorrarazten ditu, besteenganako zapalkuntza eta indarkeriaren funtsezko oinarri direnak, lurraldeen barnean eta gure gorputzen baitan islatzen den indarkeria hain zuzen.

(...) Guk, komunitateetan, heziketa handia dugu historiari dagokionez: inbasioetik, kreoleetatik, oligarkiatik, burgesiatik... gaur egunera arte bizi izan zena. Agian ez oso zehatza, baina familietan beti hitz egin izan da, familiak erabat iraultzaileak direlako k'iché lurraldean. Guatemalako estatutak betidanik erasotu izan du k'iché he-

ria, gerlariak eta milaka urte dituen herria garelako, edozein zapalkuntza saiakerari tinko erantzun izan dioguna beti. Heziketa horrekin genbiltzan, gutxi gorabehera, Amerikako Estatu Batuak haien Merkataritza Libreko Itunarekin (TLC) itzuli zirenean berriro ere. Estatu Batuak beti izan dira inbasore hutsak gure lurraldeetan, munduko edozein lekutan esango nuke, eta gu jakinaren gainean geunden aspaldi. Beraz, inolako atzera pausurik ezin genuela eman bagenekien ere. “Badator berriro inbasioa” zen TLCak erantsita zekarren azpititulua. Ondoren, ezagutu genuen Guatemala jada entregatuta zegoela enpresa transnazio-nalen eskuen menpe zegoela eta TLCak estatuko legedia irekitzen zuela enpresa hauek nonahi sartu zitezten, euren jatorria edozein izanda ere. Orain Europak mineral honekiko interesa du, Txinak honakoa, Estatu Batuek beste hau... Orain badakigu bai, baina lehen TLCarena baino ez genuen ezagutzen.”

ROSA SANTAMARÍA

HONDURAS

“Zorionez, ez zait egokitu kartzelan ego-
tea, bai ordea polizia aurre egin behar
izana nire eskubideak urratu dituztenean.
Nire komunitatean, esaterako, 25 aldiz
atera dituzte etxeetatik indarrez. Azkena
erabat basatia izan zen, 120 familia izan zi-
ren. Etxeak indarrez hartu eta erre egin zi-
tuzten. Ondorioz, kide askok abortatu egin
behar izan zuten, beste asko kolpatuak
izan ziren. Istorio hauek markatu egiten
dute norbanakoaren bizitza erabat. Oroi-
tzean, norbera samindu egiten da, behin
eta berriz galdera bera errepikatuz: nola-
tan jasan dugu hau gutzia?

(...) Antolatutako emakumeak garen hei-
nean kriminalizatuak, atxilotuak eta erailak
gara lurra eta lurraldea defendatzeagatik.
Emakume borrokalaria eta defendatzaileak
gara eta badakigu gaur bizirik gaude-
la baina, tamalez, balitekeela bihar hilda
agertzea. Neurrigabeko jazarpenak susta-
tzen dituen herri honetan, defendatzailea
izatea bizitza kolokan izatea dakar.

(...) Hondurasen, lurraren defentsaren alde
borrokatzea kartzelaratze edo hilketa-
ren arriskuaren aurrean egotea da. Lurra
gutxi batzuen eskuetan dago eta ez dugu
inolako nekazaritza erreformaren legedi-
rik. Borroka galdua dugu hau. Herrialdea
gutziz militarizatuta dago eta izugarritzko

kriminalizazioa jasan izan dugu beti, neu-
rriz kanpokoak. Lurraldearen defentsan
kriminalizatutako nekazarien kopurua
gehiegizkoa da: 6.000tik gora, haien ar-
tean 1700 emakumeak. Atxilotzeko agin-
dua dute eta 15 egunero sinatzera joateko
agindua bete behar dute. Haurdun zeuden
zenbait kide atxilotu egin dituzte eta, az-
kenean, abortatu egin behar izan dute,
egoera jasanezin batera bultzatu dituzte-
lako. Erakundean, kartzelan dauden kideen
askatasuna lortzeko lana egiten ari gara.
Usurpazioa eta sedizioa leporatzen zaie.”



BERTA ZÚÑIGA

HONDURAS

“2009ko estatu kolpearean ondoren, lenca herriaren lurrak ez ezik, gainontzeko komunitate indigena guztien lurren emakida masiboa hasi zen. Eskualde honetan proiektu hidroelektrikoei oposizio handia egitea egokitu zaigu, tamaina txikiagoko zenbait meatze-proiektuei eta energia sortzeko beste batzuei ere, eolikoei esaterako. Baita zenbait erkidegotan dauden basoen pribatizazioei ere, degradazio eta baso-soiltzen ondorio diren isuriak murrizteko helburu sakonarekin.”

“Gure kultur praktikak eta nortasuna bera, mehatxupean daude bizi dugun homogeneizazio kulturalen erruz, eta nortasun eta kultura hori guztia apurka-apurka ezabatzen ari den arrazakeria historikoagatik.”

SUYAPA MARTÍNEZ

HONDURAS

“Neoliberalismoak dezente egin du aurrera, Erdialdeko Amerikan bereziki. Enpresa estraktibista handiek eroskerien bitartez funtzionarioak erosten dituztelako, alegia. Ustelkeria gure eguneroko biziaren parte bilakatu da. Beti bezala, herriek pairatzen dute euren lurraldeetatik kanporatuak diren heinean. Emakumeek, batez ere, zailtasun handiak izaten dituzte borroka lehen lerrora joaten direlako, azkenean kriminalizatuak izateko. Gainera, euren sorbalden gain etxeko lanak aurrera ateratzeko arduraren bitartean.

Sistemak gero eta gehiago estutzen ditu emakumeen bizitzak. Etxegabetzeak, migrazioak, indarkeriak, segurtasun eza, lan gaitzera... guzti horri aurre egin behar diogu egunero. Guk geuk mugitzen ditugu komunitateak; gu erasotzen bagaituzte, komunitatea bertan behera geldiarazten ari dira. Emakumeak gara bizia ematen dugunak, horregatik erasotzen gaituzte.”



KAREN GARCÍA

HONDURAS

“Garifuna komunitateetan gertatu izan den guztiak helburu zehatz bat izan du, estatuak garifunaherria desagerrarazteko erabili duen strategiaren ondorio zuzena. Gu, garifunaemakumeak, koko olioaren ekoizle gara. Orduan, Honduraseko estatuaren erabakia koko zuhaitza akabatzea izan da, gu hondurastar bezala ezagutzen ez gaituzten heinean, eta gure oinarritzko biziraute produktua erabat moztuz. Gaixotasun larriak areagotu ziren kokoen inguruan, asko ahuldu zutenak landarea bera, eta, ondorioz, kostaldeko komunitateak higaduraren aurka babesteko zuten hesi naturala ere galduz joan dira. Gure gastronomia ere kokoaren erabileran oinarritzen da batik bat. Baina enpresa estraktibistek palma afrikarra ekarri zuten gure lurraldera, olio ekoizteko eta kontsumitzeko. Herio proiektu bat bilakatu zen. Palma honen produktu asko kontsumitzera behartu gintuzten eta orain, horren ondorioz, gaixotasun larriak jasaten ditu: diabetesa, presio arteriala, azido urikoa... gure arbasoek inoiz imajinatuko ez zutena. Dena palma afrikarra kontsumitu beharraren ondorio zuzena izan da.”




KERLIN TERESA COLÓN
HONDURAS

“Diktadura arrazista batean bizi garela oso argi daukagu, are gehiago estatu kolpearen ondoren, baina bidegabekeri guztiei aurre egiten tinko jarraitzen dugu. Gure lurralde eta kostaldeak oso erakargarriak dira transnazional eta atzerriko enpresa askorentzat, duten gehiegizko diru-gosea asetzeko. Udalerrien bidez gobernuak gure lurrak eman dizkie kanpotar harrapakari horiei. Arazoak ditugu, halaber, droga trafikanteekin, indarrez jabetzen baitira gure lurraldeez eta herrikideek ere euren lursailak saltzera behartzen dituzte.”

CLAUDIA VÁZQUEZ
CHIAPAS

“Lankideek, luraren titular bilakatzearen nahiagatik edo beren lurraldearen alde borrokatu nahi izateagatik, hainbat eraso, jazarpen edota estigmatizazioei aurre egin behar izaten diote. Gainera, euren lursailetatik alde egitea erabakitzen dute askotan borrokan jarraitzeko. Emakume batek, bere lurrerako eskubidearen alde borrokatu nahi duenean, haren zuzeneko erasotzaileak aurrez-aurre aurkituko ditu baina, gainera, sortuko den komunitate eta egitura indarkeria guztiari ere aurre egin beharko dio. Askok pausu hori ematea erabaki dute.”




MARIXELA RAMOS

EL SALVADOR

“Cabañasen Pacific Rin meatzaritza enpresaren aurkako borroka izan genuen 2004an. Enpresa iristean, komunitateek ez zekiten meatzaritza enpresa bat zenik. Lanpostuak sortzeaz, meatzaritza berdeaz eta eskualdearen garapenez hitz egiten heldu ziren, jendeak hori dena sinistu egin zuen. Cabañas El Salvadorreko eskualde pobreenetako bat da, analfabetismo tasa altuarekin eta oso erlijioso da. Enpresa karguak erosten saiatu zen. Lehenenik eta behin, herri agintariengana hurbildu zen, alkateengana, herriko jaiak sustatzen zituzten jendea erabat despistatuta egon zedin, haien inguruan zer gertatzen ari zenaz ohartu gabe.

(...) Haien ustezko garapena benetan zein zen ikusten hasi ginen. Hasiera batean, enpresak proposatutakoa ustiapenaren irabazien %1a udalerrian inbertitzea zen, beste %1a El Salvadorko estatuarentzat izango zen eta gainontzeko %98a enpresaren jabeentzat, kasu honetan Kanada eta bere elkarteentzat, ziur asko beste herrialde batzuetako kapitalarekin. Hau da, sortutako diru gehiena beste herrialde batzuetara joango zen. Orduan, iragarki txikien bidez edota kapsula hezigarrien bitartez, enpresak ze enplegu mota eskaintzen ari zen azaltzen hasi ginen. Herritarrei azaldu genien lanpostu oso arriskutsuak

zirela, lur azpian pozoia eta zianuroarekin jarduten, eta eskuekin urrea harkaitzetatik zuzenean erauzi beharko zutela. Zer gaixotasun mota sor zitzaketan azaldu genien ere, beste leku batzuetako lekukotasunekin argudiatuz, adibidez, Limako Santa Rosa herriarekin. Bertan ibaia guztiz kutsatua geratu zen eta herrikideak giltzurrun-gutxiegitasunez hiltzen hasi ziren, arnas gaixotasunekin, odolean gaixotasun askorekin uretan, airean eta lurrean zauden metal astunengatik. Behin meatzeak eztanda egiten duenean, dena kutsatu egiten da segidan eta pozoi partikula guztiak lurrean geratzen dira. Ez genuen inondik ikusten “meatzaritza berdea” kontzeptua ezta enpresaren ustezko erantzukizuna. Gezurrekin heltzen dira komunitateetara eta inposatutako lekualdatzeak eragiten dituzte.”





OLGA CORONADO

GUATEMALA

“Gure odola eman behar izan dugu maiz. Emakumeak erail dituzte lurraldearen defentsan aritzeagatik, gizonak ibaia edota ura defendatzen saiatzeagatik. Urik gabe gu ez gara deus. Urrea izan dezakegu bai, baina urik gabe ezin gara bizi. Horregatik diogu herri indigenak garela eta bizitza defendatzen dugula, baina bizitza bere osotasunean. Hori da Ajchmol eta Mam Kontseiluek San Markos eskualdeko kostaldean, San Pablo udalerrian hain zuzen, egiten ari diren lan ildo nagusietako bat bizitzaren defentsan eta proiektu hidroelektrikoen aurka. Heldu diren enpresak tokian-tokiko ikerketak egin dituztela eta aho betez leku horietan inor ez dela bizi diote. Baina hau gezur hutsa da, izan ere, jendea hiltzen ari dira egun argiz. Hala ere, antolakuntzak indar handia izan du beti, anai-arrebek bizia defendatu izan dute beti eta ezin izan dituzte enpresak sartu momentuz. Ahots altxatze hauen ondorioz, anai-arreba asko espetxeratuak izan dira, haurrak bakarrik utzi behar izan dituzte eta ezin izan dute ikasketekin jarraitu. Emakume askok aita eta amaren papera hartzera behartuak ikusi dute euren burua une horretan, senarrak kartzelaratuak izan direnean. Giza eskubideen urraketa bortitza suposatzen du honek. Gu, herri indigenak garen heinean, ez gara existitzen Estatuaren-

tzat, gure oinarrizko eskubideak erabat zapalduak daude.

(...) Meatzaritzaren kontra borrokan izan diren herritarrak defendatzen eta babes-ten izan gara askotan ajchmol erakunde gisa. Tamalez, prestakuntza eta hezkuntza falta zela eta, askok borroka hori alde batera utzi zuten. Meatzearen aurka borrokan gaudenok ez dugu espaziorik jada; izan ere, pertsona talde konkretu batek bereganatu egin du bertako biztanleria osoa, eta gure jendea ere aurka jarri nahi dute. San Miguelko pertsonak bilatzen dituzte, proiektuaren aurka daudenak, eta hil egiten dituzte, espetxeratu, bortxatu... Bizitzaren aldeko apustu duina egin beharrean, erabateko sarraskiak egitera etortzen ari dira San Miguelera. Enpresa transnazional hauek sorrarazi duten gaitz larrietako bat biztanleriaren baitan sortu diren desadostasunak izan dira. Udalak enpresaren alde agertzen dira sarri eta ez dute biztanleen mesedetan lan egiten, Estatua bera ere jokoaren parte bilakatzen da, poliziak makinak babesten dituen heinean esaterako.

Gu, erakunde gisa, burutzen ari garen lana pertsonak heztea da, ezer egin ezean gertatuko denaren ingu-

ruko hausnarketak bideratzea. San Miguel de Ixtahuacánen kasuan, enpresak ez zuen inoiz behar bezala azaldu proiektu horrek azalean alergia sorraraziko zuenik, ez zuten inoiz esan ur hori kutsatuta egongo zenik luzerako, ez zuten inoiz aipatu animaliak hil egingo zirenik, etxeak hondoratu edota etxeetako hormak pitzatu egingo zitezkeenik. Aitzitik, garapena suposatuko zuela aldarrikatzen zuten behin eta berriz, bizitza hobetuko zitzaigula, heziketa hobea jasoko genuela eta orokorrean dena hobetuko zela esaten ziguten. Ez zuten inoiz aipatu proiektuak alde negatiboak ere bazituela ezkutuan. Azken finean, jendea berriz engainatzeko modu bat izan zen.”



MARÍA DÍAZ GUTIÉRREZ

CHIAPAS

“Orain martxan dauden megaproiektu guztiak gure herrietan eragina izaten ari dira, errepideak eta Maya Trenbidea adibide garbiak dira. Proiektu hauek ez digute ezer onik ekarriko guri, gu akabatu egingo gaituzte. Gobernuaren hitzetan, Maya Trenbideak jende askori mesede egingo dio, tren azkarra den heinean pertsoneri merkantzia eta samak bertan edonora eramateko aukera eskainiko die. Edonorentzat onuragarria izango dela aldarrikatzen dute. Guk ez dugu horrela ikusten, izan ere, CNlaren parte diren herrietatik igaroko da bidea eta guk ez dugu hori nahi, ingurumena eta urak zikinduko ditu... komunitateei kalte larriak eragingo dizkio horrek.”

AURELIA ARSÚN

HONDURAS

“Gure eskualdeetan ematen ari diren proiektu erauzleen kontra borroka egitea oso zaila da, proiektu ugari ari dira sartzen jada: meatzaritza, termoelektrikoak, ibaien desbideraketak etab. Esaterako, Aguango Santa Rosan, nire komunitatean bertan, oso kasu korapilatsua dago Aguan ibaiaren ubidearen desbideraketarekin. Arrainak kontsumitzen genituen han bertan, baina gaur egun ibaiko flora eta fauna guztia suntsitu dute. Orain erabat akabatuta dago dena, eta gehien pairatzen dugunak emakumeak gara.

Gure lurraldeak bizi duen harrapakeria basatia Ama Lurra guztiz hiltzen ari da. Bizi ohi dugun egoera honek gure gorputzak erasotzen ditu, lurra eta natura ere gaitotzen dituen heinean. Lurrak jasotzen dituen kalte guztiak gure gorputzek pairatzen dituzte, gorputzak eta lurrak izaki oso bat baitira.”



CARMEN ISABEL ÁLVAREZ

HONDURAS

“Herrialde honetako talde erraldoiei aurre egin behar izaten ari gara, Vallecito komunitatearen kasuan bezala. Komunitatea oso ederra da, baina gatazka ugari izan dira bertan. Azkenean askatzea lortu zen, nar-kotrafikatzaileen eskuetatik kentzea. Garifunakbizi ziren han, lan egiten zuten eta eskola bat ere bazegoen. Baina erailketak eta presio jasanezinaren ondorioz, herria utzi behar izan zuten erabat ikaratuta. Ez da lan erraza narkoekin lehiatzea. Esaterako, hegazkin txiki eta helikopteroentzako ezkutuko pista bat zegoen bertan, droga paketeak deskargatzeko erabiltzen zutena.

Nik uste, Estatua bera ere ezin izango litzatekeela komunitatera sartu erakundea sartu zen bezala, narkoei esku hutsik aurre eginez, inolako armarik gabe. Emakumeak izan ginen lehen lerroan jarri izan ginenak, ausardia osoz, eta soilik gure jakinduria erabiliz lortu genuen lurraldea berreskuratzea, armarik gabe. Azkenik, lur horiek garifunaherriaren izenean dokumentatzea ere lortu genuen, behin betiko.

Egunen batean bertara joateko aukera izango bazenute, bertako ingurugiroaz gozatzeko aukera izango zenukete. Gaur, kokoak ditugu landatuta lur sail batean, baina helburua eremu hori zabaltzea eta askoz gehiago hedatzea da, bertatik koko



olioa lortzeko. Juka plantazioak ere badi-tugu, cazabe (juka irinaz eginiko tortilak) egiteko erabiltzen ditugunak. Orain, emakumeen bilera nagusiak bertan egiten ditugu.”



— *NOLATAN* —

EUTSI

GENEZAKE?



FRANCISCA AGUILAR MEJÍA

GUATEMALA

“Gure arbasoek bertan urrea existitzen zela jakin bazekiten, baina sakratua zela ere bazekiten, Ama Lurraren bihotza baitzen. Horregatik, guztiz ukiezina zen. Bihotz hori, urre hori, Ama Lurraren taupadak dira. Tamalez, beste herrialde batzuk etorri eta Guatemalako herria bereganatu izan dute historian zehar, gehienetan heziketa falta aprobetxatuz. Ikasgabeak deitzen gaituzte askotan, baina hau erabat faltsua da. Ezagutza propioa dugu, apartekoa eta izugarria dena.”



OLGA CORONADO

GUATEMALA

“Lurreldeaz hitz egitean, ez gara soilik lurraz mintzatzen ari. Lurra hitzaren baitan ura, airea, elikagaiak, janzerak, identitatea, komunitateetan ditugun botika naturalak, osasuna bera... ditugu. Hauek bizi-kontzeptu oso bat osatzen dute, bata bestearen beharra dute, eta ezin ditugu ulertu banaturik. Hainbeste desiratzen dugun bizitza hori, gure esku dugu, gure komunitateen eskuetan dago. Hitza eta komunikazioari esker, arazo asko konpondu izan dira bertan.

Maya kulturaren kasuan, erabat ezinezkoa da jazotako balore eta oinarri horiek banatzea, bata bestearen beharra baitute ulertu eta aurrera egin ahal izateko. Xchmol delako kontzeptua dugu, ilekorda baten antzera irudikatu daitekeena, non hauek bat egiten duten izaera eta nor-tasun indartsu bat osatuz, gure bizimodu propioa sendotuz. Hori da garrantzitsuena gurretzat: oreka osoan bizitzeko aukera izatea, espetxe edota zigorretatik aldentuz.”

MARIXELA RAMOS

EL SALVADOR

“Santa Marta udalerrian izugarritzko sarraskia eman zen 80ko hamarkadan. 1981. urtean El Salvadorreko armadak Tierra Arrasada deituriko estrategia politiko-militarra burutu zuen bertan. Helburua, bizitza izan zezakeen edozer akatzea zen: pertsonak, animaliak... dena. Horrelako ekintza militar bat burutzean, argi eta garbi azpimarratzen ari zara ez duzula inolaz ere bizirik utziko. Gauzak horrela, komunitatea antolatuta egin zen eta, Lempa ibaia zeharkatuz, Hondurasera ihes egin behar izan zuen. 7 urte igaro genituen erbestean. Lau txanda behar izan ziren Santa Martako biztanleria osoa berriro bere lurrera itzultzeko: 1987an lehena, ondoren 1988an, 1989an hirugarrena eta, azkena, 1992ko martxoaren 22an, Bake Akordioak sinatu eta gero, hain zuzen ere. Azken honetan bueltatu nintzen ni.

(...) 1992. urtean, behin jende guztia bueltan zelarik, etorkizunari begira jartzeko unea zen, betiere antolatze modu hori oinarri hartuta. Komunitateak planteatutako nahi eta ideien artean, guztiz argi genuen komunikabide propio baten beharra. Agian, garai hartan ez genuen imajinatzen orain duen indarra izango zuen irrati bat sortzen hasiak ginela, baina bai bagenekien komunikabide baten beharra nahi-taezkoa suertatzen zela. Komunitateen


ahotsa en-tzutea zen helburua, hauek bizi izan zutena ezagutaraztea eta El Salvadorreko armadak erasoetan zuen erantzukizun zuzena salatzea. Haien, gudarosteak jazarri baina erail ezin izan zutenen testigantza bizia dira, bizirik daude eta asko dago kontatzeko oraindik. Lehen irrati independente hauek birpopulatutako herrietan ematen dira hain zuzen, Guargila, Usultán edota Segundo Montes esaterako. Azken hau, gainera, Hermosote udalerrian kokatzen da, non herrialde osoko sarraskirik latzena eman zen.

(...) Komunikatzaile gisa, defentsa-aktibismoa egin genuen, komunikazioaren indarrak baliatuz. Esperientzia mingarria da egia esanda baina, batez ere, jendea ahalduntzen denean eta komunikabidea benetako tresna indartsu gisa antzematen duenean, horrek asko laguntzen dizu aurrera jarraitzeko. Ikaragarria izan zen, sinestezina zentzu askotan. Adibidez, irrati mehatxatu zutenean, jendeak hilabete oso bat eman zuen hura zaintzen. Gau eta egun txandakatzen ziren, taldeak egiten zituzten. Denbora horretan gu ez ginen lotara joaten etxeetara, seguruago sentitzen ginelako geltoki barruan. Ordurako, mehatxuak gure mugikor pertsonaletara bidaltzen zizkiguten. Zelatatzen gintuzten, larzeria estrategia bat zen.”

LOLITA CHÁVEZ

GUATEMALA

“Gure herriek zuten kosmogonia propio-
ra itzuli behar gara. Haiek praktikatzen
zuten justizia kosmiko hura ez zuen ino-
lako funtzionario edo instituzioen beha-
rrik, ezta legedia baten beharrik ere. Gaur
egungo legeek ez dute inolako justizia, ez
dute inolako ontasunik bilatzen. Guk gure
aitona-amonek irakatsitakoari jarraitzen
diogu, arbasoen ezagutzaren oinordeko
zuzena dena. Mundu ikuskera hori aplikatu
beharra dago baina, horretarako, ezinbes-
tekoa da naturarekin bat egitea, bizitza be-
rarekin, naturaren arau eta legedia haiek
behar bezala antzeman ahal izateko. Hau,
zeregin eta energiarekin guztiz harrema-
natuta dago, zeharo kosmikoa da. Gauzak
horrela, askok erotuta gaudela uste dute,
haien testuingurutik oso urrun dagoen
zerbaitez ari garela uste dute, horrega-
tik oso zaila suertatzen da planteamendu
hau behar bezala ulertzea. Beste mundu
ikuskera guztiz ezberdin batzuek ari gara
uneoro hitz egiten, baina beste mundu oso
batzuk ere badirelako gure inguruan.”



CATALINA HERNÁNDEZ

HONDURAS

“Guadalcarque ibaian eraikuntza obrak hasiak ziren jada, baimena emanda zegoen eta lanak abian ziren. Zoritxarrez, herriko alkateak enpresarekin adostu egin zuen akordioa urtegiaren eraikuntza martxan jartzeko, baina ez zuen herritarrekin ezer ere ez kontsultatu ordea. Hau izan da, tamalez, gure egunerokotasuna betidanik: hona heldu eta obrak berehala hasi herri kontsulta bat egin gabe. Hala ere, kasu honetan, komunitateak azkar antolatu ziren urtegiaren eraikuntzari aurre egiteko prest. Borroka gogorra izan zen hura, oso bortitza guretzat, eta horren ondorio zuzena izan zen Berta Cáceres kidearen erailketa. Geldiaraztea lortu genuen hainbeste sufritu eta gero. Oraindik ere geldirik jarraitzen du, baina adi egon behar-ko gara, edozein momentuan berriro ere martxan jartzeko arriskua baitago. Izan ere, ez dakigu ziurtasun osoz proiektua bertan behera utzi duten ala soilik lanari berriro ekiteko uneari itxaroten ari diren. Hori guztiari eta mehatxuei aurre egin behar izan diegu, horrekin bizi behar izan dugu. Megaproiektu hauen kontra borrokan egotea oso gaizki ikusita dago, gure ibai eta urak defendatzea delitu gori bat balitz bezala. Hala ere, tinko jarraituko dugu lehian hemen, nahiz eta

mehatxuak eta erailketak etengabe jazo. Lagun eta anai asko hilak izan dira eta beste hainbat eta hainbat, kartzeletan ditugu, arrazoirik gabe espetxeratuak, soilik Natura defendatu izanagatik. Borroka honetan denok bat egitea zoragarria litzateke.

Gizaki gisa, Lurrarekin benetan erlazionatzeko dugun modurik egokiena hura defendatzea da hain zuzen, badakigulako Lurra bera dela bizia ematen diguna, gure Ama Lurra da. Gauzak horrela, lurra zaindu behar dugu, basoak zaindu behar ditugu, ura eta, oro har, existitzen den guztia zaintzeko beharra dugu: animaliak, gure natura... Hori azaldu behar zaie, orokorrean, ezagutza edota sentipen bera ez duten pertsoneri. Gure inguruan duguna zaindu behar dugu. Hori azaldu behar zaio jendeari, mundu guztiak uler dezan herri indigenek egiten ari garenaren ardatz nagusia zein den.”



BERTA ZÚÑIGA


HONDURAS

“Lenca herriarentzat, Lurra herri indigenak historikoki bizi eta biziraun duten tokia da, bertan etxebizitzak eraiki dituzte, bertatik elikatu dira eta hura bere osotasunean zaintzen saiatu izan dira beti. Gainontzeko Latinoamerika edota Erdialdeko Amerikako herri indigenen antzera, lencaherriak naturarekiko harreman askoz estuagoa izan du hirigunetan bizi ohi direnekin alderatuz gero. Guk, gizaki edo komunitate oso gisa, Lurrari lortutako ondasunengatik eskerrak ematea da gure zeremonia esanguratsuenetako bat, edo behintzat zati bat eskaintzea.”

“COPINH 1993an sortu zenetik eta, batez ere, lider fundatzaileen lanaren ondorioz, eta haien artean Berta Caceres kidea izanik, betidanik oso argi izan dugu prozesu libertario bat eraikitzea zela gure nahia. Horrek esan nahi du herriak kanpotik mehatxatzen dituen arerio horietan soilik gure lana ardazteaz gain, haien barne prozesuak mehatxatzen dituen etsaieran ere

zentratu behar garela. Askatasun horren alde borrokatzen den herria izan arren, eta naturarekin harreman orekatua ere dugula jakinda, oraindik zapalkuntza ahalbidetzen duen barne mekanismoak ere baditugula onartu behar dugu. Horien artean, esanguratsuen emakumeen aurkako indarkeria dugu, eta baita patriarkatuaren ondorioz emakumeek izan duten parte hartze politiko eskasa ere.

Denborak aurrera egin ahala, COPINHek bere burua erakunde antipatriarkal gisa aldarrikatu zuen eta emakume indigenen batzar propioa eratu zen, zapalkuntza prozesu horiek barrutik desagerrarazteko helburuarekin. Une oso latz eta konplexuak sortu izan ziren taldearen baitan, barne eztabaida hauek zirela eta, askok mehatxu gisa hartu zituzten egun horiek, erakundea zatituko zelakoan. Izan ere, gizonezkoen lidergo historikoak ere zalantzan jartzen hasi ziren, eta deseroso agertzen hasiak ziren ere abusu sexualen kasuak aipatzean, tamalez, gizarte osoan eta lencaherriaren baitan oraindik oso presente dauden errealitateak direlako.”



KERLIN TERESA COLÓN

HONDURAS

"Lurrak berreskuratzeko prozesua abian jarri dugu jada, komunitate gisa hiriguneetan besterik ez garelako geratzen antzematen hasi garelako. Gure elikagaiak ekoizteko eta elikadura-subiranoetasun hori lortzeko hain beharrezkoak ditugun lurrak galtzen ari gara. Horrekin batera, biztanleriaren hazkundera ere kontuan hartu beharra dago. Horregatik, antzeman genuen gure lurrak berreskuratzearen beharra.

Prozesu honetan, dagozkigun lur horietan sartu eta ezartzeko erabaki zuzena hartu genuen, dagoenaren esku egonda ere. Alde batetik, OITk sinatutako hitzarmena dugu, 169. artikulua araberako lur tituluak aitortu zizkigunak eta horrek bermatu egiten gaitu ere nolobait. Hitzarmen honetaz baliatuz, dagokigun eskubide hori aldarrikatzen dugu.

(...) Bizi arrisku hori onartu egin dugu eta gure lur hauen berreskuratzeko prozesuan jarraituko dugula argi daukagu, nahiz eta

bidean bizia eman. Epaituak eta kriminalizatuak gara uneoro, baina badakigu burutzen ari garen lana oso garrantzitsua dela. Ez dugu gizonezkoan lana gutxiesten, baina emakumeek argi daukagu ez dugula gure seme-alaben ongizatea eta bizitza hitzartuko inorekin. Emakume gisa, konpromiso handia dugu zeregin horrekin. Berreskuratzeko horrek bizi baldintzak hobetzea suposatzen du gure seme-alabentzat eta, arbasoek nola utzi ziguten guri, guk gure ondorengoei hala eskaintzeko beharra dugu. Borrokaren lehen lerrora eramaten dugu gure burua: batetik, guk garelako betebeharrak hau gehien pairatzen duguna, gure semeekiko erantzukizun gehien duguna; bestetik, haien ongizate hura sekula negoziatuko ez dugulako. Helburu finko bat dugu emakume gisa: gurea dena eta dagokiguna bai ala bai defendatuko dugu, tinko. Jada ez gara antzinako emakume apal eta otzan haiek, orain emakume ahaldun eta borrokalariak gara. Eta hala defendatuko dugu gure lurraldea."



ROSA SANTAMARÍA

HONDURAS

“Gazteak eta emakumeak gaitzea da gure erakundearen lehentasun nagusia, hauek beste herrialdetara migratu behar ez dezaten. Nahiz eta baliabide gutxiko pertsonak izan, behar bezalako ikasketak izateko aukera eskaintzen zaizkie. ViaCampesinak bideratutako egitasmoari esker, ikasleak Brasil eta Nikaraguako nekazaritza eskolara bidaltzeko aukera ere izan genuen, sustatzaile titulua lortu zezaten eta lan egin ahal izateko. Ondoren, ezagutza berri horiekin itzuli eta horiek erakunde eta nekazaritza enpresetan inplementatzera etor zitezten. “Estatu Batuetara noa, hemen ezin baitut biziraun”, esan beharrean, izan dezatela euren lur zatia landu ahal izateko, ekoizteko eta aurrera jarraitzeko. Erakundeak ematen dien hezkuntza ez formala da, eragin politikoa izan dezaten irakasten zaie batik bat. Enpresa pribatuetara joan beharrean, ezagutzak haien lurraldeetan ezartzeko apustu sendoa egiten dugu.”

CLAUDIA VÁZQUEZ

CHIAPAS

“Lurraldearen Lurraren Defentsaren aldeko Mugimendua prozesua abian jarri genuen 2015. urtean. Gure estrategiak bi ardatz nagusi izango zituela adostu genuen orduen. Batetik, estrategia politiko bat, kontzientziazio prozesu guzti hori bildu zezakeena, bai gure herri-lurren antolatzeko prozesuetan zein komunitateetan, eta aldaketen aurrean behar bezalako ekintzak bideratzeko prest izateko. Bestalde, proposamen legal baten alde ere egitea erabaki genuen. Gure oinarrietatik ekimen berriak ere sustatzeko aukera eskainiko zigun proposamen bat hain zuzen, baina baita egitura osoaren erreformak aurkezteko ere. Gaur egun, joera familiarreko erabilera eta usufruktu ekimena deritzogu honi.

(...) Lurraren aldeko eskubideen borrokak, emakume gisa gureak diren eskubideen aitorpena ere dakar. Izan ere, eskubide baten urraketak, emakume izatearen eskubidearen bortxaketa ere suposatzen du, gu subjektu gisa ez onartzea gure kontra bideratutako eraso zuzena baita.”



ELVIRA MADRID

CHIAPAS

“Kideek osasuna euren esku hartu dute, beraz. Orain, haien buruak sendatzen ikasi duten osasun sustatzaileak bilakatu dira. “Nire gorputza da, maite dut eta, ondorioz, zainduko dut”, autozainketaren beharraz kontziente dira orain. Kondoia erabiltzea, Papanicolaou froga egitea edota aldizkako azterketak egitea ez zaie ahazten jada. Eta ez haiek bakarrik, orain seme-alabekin, anai-arrebekin eta inguruko jendearekin ere egiten dituzte. Garrantzitsua da gu GIB proba bat egiteko gai garela ohartzea eta ikastea, ez dugula erizain edota mediku baten beharrik izango horretarako. Lan honek, gure kabuz aurrerapenak lortzeko kapazak garela antzematen laguntzen du. Kondoi marka propio bat ere sortu dugu, auto-finantzaketa iturri bilakatu dena. Mexiko Hirian klinika bat eraikitzea ere lortu dugu, La Merced auzoan konkretuki, Latinoamerikako sexu-langile gehien biltzen dituen gunean hain zuzen.

(...) Kalean hasi genuen borroka, nolabaiteko jabe edo agintari baten esku zegoen beti, polizi edota amabitxi edo aitabitxi bat izan zitekeena, adibidez. Kalea erabat bere sentitzen zuen. Baina, hemen jaiotako borrokalari iraultzaile batek zioen bezala: “Lurra, lantzen duenarena izango da beti”. Emiliano Zapata zen hura. Guk, esamolde historiko hori eraldatu dugu eta, orain,



“kale kantoia bertan lan egiten duenarena” dela diogu. Barneratu egin dugu aldarrikapen hori eta errespetatu dadin borrokatzen dugu egunero. Urtero, maiatzaren lehenean, nazioarteko lanaren eguna ospatzen dugu, eta harro ospatu gainera. Gustatu ala ez, bakoitzak ahal duen bezala bizirauten saiatu behar da. Horregatik diogu izkina, bertan lan egiten duenarena dela, eta inork ezin duela bereganatu. Esparru hau da gure borroka gunea, gure lurra alegia, eta horren defentsan arituko gara jo eta su, lurraren defendatzaileak aritzen diren antzera. Indigenak euren lurra defendatzen dute, landa gunek alegia; langileak fabrikak; iparraldeko lagunek laka lana ongi ordaindua izatea defendatzen dute... Bakoitzak bere borroka esparrua du bai, baina guztiok olatu beraren parte gara.”



STACY VELÁZQUEZ

GUATEMALA

“Garapenerako komunikazio-estrategia bat bideratzen ari gara gaur egun. Helburua ez da gaixotasuna saihestea soilik, gripea edo tripako minaren kasuan esate baterako. Gure nahia da emakume transek haien gorputzak feminizatzeko olio industrialik injektatu behar ez izatea, ezta hormonez abusatzeko beharra edukitzea ere, alkohola edota drogak baztertuz bizitza-proiektuak egiteko aukera edukitzea. Sexu-lana ogibide finkoa izan beharrean, hau igarokorra baino ez izatea emakume transexualen kasuan. Hala ere, biziraun behar

dugu eta, beraz, ezin dezakegu sexu-lana testuingurutik ezabatu. Trans gizonengan, esaterako, erabiltzen dituzten gerrikoen kontua dago, askotan, gorputzean zauriak eragiten dizkietenak. Azken finean, ez-behar horiei guztiei aurre hartu nahi diegu.

Osasun protokoloaren lan ildoak sortuak ditugu jadanik eta ministerioaren onarpenaren zain gaude. Gure osasun-estrategia bizia da, horregatik deritzogu gainontze-koetatik bereizia dela. Honen adibide argia ordutegiak lirateke. Izan ere, Mexikon betidanik egin izan den praktika ona dugu hau, klinikak oso berandu arte irekita mantenduz edota gaueko ordu txikietara arte zerbitzu anbulatorioak ere irekiz. Askotan, sexu-langileei goizeko 7etan ematen dizkietelako hitzorduak, esaterako. Baina neska horiek ohera joango dira ordu horietan. Bestalde, gure erakundearen ere badugu jada klinika komunitario bat, GIB, sifilis edota B hepatitisaren probak egiteko aukera eskaintzen duena, eta baita hormona-tratamendurako aholkularitza ematen dugu ere.”



TANIA

HONDURAS

“2019ko urtarrilaren 30ean, garifunahe-
rriaren LGTBI kolektiboaren lehen biltza-
rra burutu genuen, Vallecito udalerrian
hain zuzen. Bertan 200 pertsona biltzea
finkatu genuen helburu gisa. Gutxi badi-
rudi ere, guretzat itzelezko esfortzua su-
posatu zuen, izan ere, komunitateetan ha-
lako gaiak jorratzea edo aipatzea tabu dira
oraindik ere. Trans pertsonak, bisexualak,
lesbianak, homosexualak... badira baina,
tamalez, kontuzko gaia izaten jarraitzen du
toki askotan. Erronka ez zen batere erreza,
baina gogotsu hartu genuen. Nahiz eta gau
askotan lorik ez egin, azkenean, 180 bat
pertsona batu ginen. Pairatutako ezbehar
guztiak igarota, halako arrakasta ikustea,
harro sentitzeko modukoa izan zen. Izuga-
rrizko inpaktua suposatu zuen Hondura-
seko herrialderentzat.

Nortasuna da lan ardatz nagusienetako
bat eta, zeregin horretan behar bezala ari-
tzeko, garifunapsikologoz osatutako talde
bat eratu dugu. Askotan, LGTBI pertsonak
baztertu edota kriminalizatu egiten di-
tuzte euren komunitateetan, kale gorrian
geratzen direnak askotan. Horri aurre egi-
teko, aterpetxe bat ere sortu dugu, haiek
bertara gerturatu daitezten laguntza eske.”



YAMANIK CHOLOTÍO GUATEMALA

“Komunitateetan bertan egotea eta eskualdeko hizkuntzek zuten ezagutzak zabaltzea zen oinarrian irrati komunitarioek zuten helburu nagusia. Orduan, emakumeen inguruko gaiak jorratzen hasi ziren, nerabeekin zerikusia zutenak, denbora librearekin lotuak... Beraz, ez da soilik musika jartzen duen irrati bat, baizik eta eduki propioa sortzeko gai dena eta, are garrantzitsuago, komunitaterako ere sortzen duena. Irrati komunitarioek ez dute ezizen hori soilik komunitate konkretu batera murrizten direlako, eduki guztiak komunitate hauetara bideratuta daudelako baizik.

Irratiek eragiten duten gauzarik garrantzitsuenetakoa bat komunitateen testuinguruetan sorrarazten duten ahalduntzea da.”

SUYAPA MARTÍNEZ HONDURAS

“Beraz, zigorgabetasun giro horri aurre egiten ari gara. Elkartasun sareak, indarkeriaren aurkako emakume sareak eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako erakundeen arteko batzordeak eratzen ditugu. Emakumeak haien eskubideen inguruan formakuntza ematen diegu, haien ere salaketak bideratu ditzaten. Indarkeria kasuetan laguntzen ditugu, autolaguntza taldeez baliatzen gara komunitateetan, sexu indarkeriari zein etxeko indarkeriari aurre egin eta gero, egoera gogorretan dauden emakumeak laguntzen ditugu. Tamalez, guztiak ez dituzte salaketak bideratzen baina, behintzat, taldea arazoari buruz hitz egiteko ere balio izan du eta ondoren, oro har, salaketa jartzea erabakitzen dute.”





AUTOZAINKETA 

OSATZEA



STACY VELÁZQUEZ

GUATEMALA

“Borrokak kezka ugari eragin dizkigu, hildako ugari zenbatu behar izan ditugu, tamalez. Baina ez sentimenduak hanpatzeagatik soilik, baizik eta hauek sendotzeagatik eta argi eta garbi esateko “hau asko kostatu zaigu eta honek min eman digu”. Prozesu horiek erabat urratzaileak izan dira guretzat, oso tristeak.”

YAMANIK CHOLOTÍO

GUATEMALA

“Gure buruak defendatzaile gisa aldarrikatzeak, emakume indigena gisa alegia, beste kide askok haien buruak ere horrela aitortzaten lagun dezake.

Emakume gaztea naizen heinean, emakume defendatzaileak bizi ohi dugun errealitatea ere zalantzan jartzen hasia naiz jada. Izan ere, askoren ustetan, emakume defendatzaileak guztiaren kargu egin beharoko ginatke, baina adierazpen hau guztiz okerra da. Defendatzaile batek gainontzeko emakumeentzako onurak bilatzen ditu etengabe, babestu egiten ditu lankideak, guztiok ahalik eta ondoen egoteko espazioak aurkituz. Autozainketa prozesu oso bat da, azken finean.”



MARIXELA RAMOS

EL SALVADOR

“Gure testigantza ematea oinarrizkoa dela uste dugu, enpresa hauek eragindako kalteen nondik norakoak neurtzean batez ere. Kalte hauek neurtzean, orokorrean, ikusgai edota begi bistakoak direnak baino ez dira aztertzen, baina ez dira kontuan hartzen osasun emozionalarekin zerikusia dutenak: emakumeengan eragiten dutenak, familietan, esparru sozialean... Irratian bertan horrelakoak pairatu genituen, edonoren beldur ginen zenbait momentutan. Enpresa hauek eragindako zauri psikologikoa guztiz neurgaitza da, eta hortik aurrera eguneroko bizitzaren parte bilakatu da. Gainera, benetako osatzea ez da inoiz lortzen, hau da, ezerk ez digu ziurtatzen arriskuan egongo ez zarenik. Polizi ikerketen emaitza zehatzik ez dago ere. Egoera handizkatzen eta puzten genuela leporatzen ziguten, irratiko langileok eskandalua besterik ez genuela bilatzen eta herrialdetik ateratzeko egiten genuela, gu beste leku batera eramateko asmoarekin. Zurrumurru horiek poliziak berak zabalitzen zituen. Haien jarrereri ere aurre egin behar izan genien beraz. Ez genuen martiri

bilakatu nahi, jada El Salvador martiriz bete dago, eta mundua bera ere bai, horietako bat gehiago izan nahi izateko. Bizitza bera defendatu nahi dugu, bizirik jarraitu nahi dugu; hilda ez diogu inori inolako mesederik egiten.

(...) Esparru psikologikoa zaindu beharreko beste ataza dugu. Segurtasuna eta arlo psikologikoa lantzeko tresnak bideratzen gabiltza orain. Edozein erakunderentzat, hain gogorra izan den esperientzia baten ondoren, autozainketa prozesu hauetan parte hartzea ezinbestekoa da nire ustez. Alde eginda dauden kide askok aitortu izan digute borrokak bizitza erabat aldatu zuela. Osasunaren partetik, gastritis arazoak pairatzen hasiak gara, lo egiteko zailtasunak areagotu zaizkigu, estres edota nerbio-sisteman emandako gaixotasunen ondorioz. Hala ere, gaitz hauek aitortzea edo publiko egitea oso mingarria da gizonezkoen kasuan, adibidez, bizitako une latz horietan haiek ere beldur zirela onartzea, oso zaila delako. Guztiz matxista den sistema batean bizi gara eta, beraz, soilik emakumeak



autozainketaz hitz egin dezakegunak garelara dirudi, gizonezkoen ardura ez balitz bezala. Gizon eta emakumeen arteko rol hauek hain finkatuta izateak autozainketaren garrantzia zeharo murriztu egiten du, denontzako onuragarria denean gainera.

(...) Osatze hauen beharraz oso kontziente izan behar dugu, eta horrela izan dadin erantzule izan. Izan ere, gu osasuntsu egonda, bai fisikoki zein emozionalki, lan sakonagoa burutuko dugu. Gizakiak garen heinean, sentimenduak eta sentipenak ditugu, adierazteko bide ugari dituzten gorputzez osatuak, ez gara makina bizigabeak.”



LIGIA DESTEPHEN HONDURAS

“Defendatzaile izan baino lehenagoko nire bizimodua askoz lasaia goa zen, oso eroso. Oinarrizko beharrak erabat asetuta dituzunean, zure inguruan gertatzen denaz ohartzea oso zaila egiten da, oso eroso baita borrokatu gabe bizitzea. Nire bizitza pertsonalean ere zenbait aldaketa eman dira honi esker. Adibidez, abortuaren despenalizazioaren alde nagoela onartzeak ez dit inolako lotsarik suposatzen gaur egun. Lehen, ordea, hain kontserbadore eta erabat matxista zen nire familia batean jaiota, honako gaiez aritzea guztiz ezinezko nituen. Giza eskubideen alde aritzeak asko agortzen gaitu ere, gau eta egun prest egotea exijitzen dizun lana da eta. Beti dugu gertakariaren bat eta abian jarri behar gara atoa, ezbehar eta larrialdiei dagozkien erantzuna emateko prest. Beraz, adi egon behar gara egunero, astero, astebururo... Gure zeregin guztiak lanaren menpe daude uneoro.

(...) Gehiagorako indarrrik gabeko uneak ere badaude askotan. Orduan, zure inguruan gertatzen ari den guztiarekin deskonektatu behar duzu. Hala ere, hau, zaila suertatzen da askotan, zure burua arduragabe gisa sentitzen duzulako.”

ZULEYMA ARAUZ EL SALVADOR

“Lehen ez genituen gure buruak ia zaintzen baina, orduan, autozainketa horien inguruan ikasten hasi ginen. Defendatzaile onena izatea, gehien gaixotzen dena, baina lanean jarraitu behar duena, onena izateko nahiak... holako jarrerak genituen, guztiz lur jota uzten gintuenak garai hartan. Une batean, horren inguruko hausnarketa bat burutu behar izan genuen eta gure osasuna, familiarekiko harremanak, bikotearekin, lagunekin, lan esparruan... erabat kaltetzen zituela antzeman genuen. Gauzak horrela, etenaldi bat hartu behar izan genuen. Autozainketaz ikasten hasi ginen orduan.

(...) Osasun arazoak izaten hasi ginen, baita arazo emozionalak ere, eta hauek guztiz normalizatuak genituen. Orduan ohar-tu ginen horiek gure buruak bortxatzeko beste modu bat baino ez zirela. Hortik aurrera, ikuspegi osoago bat bideratzen hasi ginen eta autozainketa oinarrizko ardatz bilakatu genuen.”



MORENA HERRERA **EL SALVADOR**

“Hasiera batean, oso burugorrrak ginen ni bezalako asko, ez genion autozainketa delako horri behar bezalako arreta jartzten. Apurka-apurka, prozesu honek duen garrantzi politikoaz eta mugimendua beraren jarraikortasunean duen erabateko garrantziaz ohartzen joan naiz. Ekintza hauen erdigunean kokatu gaitzakeen jokatibide proaktiboak bideratzen ez baditugu, azken finean, hainbeste gogaitu eta zapaldu gaituzten eskema berberak errepikatzeraren kondenuak gaude, sustatzen ari garen aldaketa sozial guztiak bertan behe-
ra utziz.

(...) Guztiz konbentziturata nago erakundeak, eta edozein mugimendu azken finean, parte garen kide eta pertsonen bultzatu eta indartu egiten ditugula. Hau da, ezin ditugu erakunde, sare edo mugimenduek dituzten ildoak eta horiek integratzen dituzten pertsonen ikuspuntuak bereizi. Pertsonok ez dugu ez denbora amaigaberik, ezta dohain amaigaberik ere. Beraz, guztiz beharrezkoa da gu geu zaintzen ikastea, gaitasun horiek sustatzen ikastea, mugimenduei epe luzera ekarpen handiagoa egiteko ahalmena izango baitugu.”

YASMÍN LÓPEZ **HONDURAS**

“Zenbait kasutan, buru garen liderrek denetarik egin behar izaten dugu: eskubideen inguruan, medikuntzan, hainbat gaien inguruko ezagutzak izatea, gure ki-deak haien lurraldeetan laguntzea... Denetarik egin behar dugu. Zentzu horretan, oso garrantzitsua da hausnartzeko eta atseden hartzeko espazioak ere aurkitzea. Urtero egiten saiatzen gara, nork bere burua zaintzeko gune bat izan dezan, ibai batean zein hondartzan esaterako. Emakumeok atzetu dezakegun lekuren batean, alegia. Ez da bakarrik besteak zaintzearen zamak gaineratik kentzea, baizik eta gu geu deskonektatu eta gure inguruan ditugun elementuekin (ura, haizea...) dugun harremana sendotzea. Horrek, borroka indartu eta aurrera jarraitzen laguntzen digu. Haurrak, bikotea edota familia osoa zaintzea bere erantzukizun soila dela uste duten emakumeak laguntzea da helburua, gizarteak inposatutako rol horien haustura bideratuz. Deskonektatu eta hausnar dezan espazio batera eramatea. Ez da lan batera erreza hala ere. Kide askok galdetu izan didate hainbat alditan jarrera berekoia ez al den. Nik, zintzotasun osoz, erantzun bera ematen diet: “Ez, lagun, ez. Zure gorputz eta buruarekin bat egitea da, norbera eza-gutzea hain zuzen.”



MICAELA HONDURAS

“Barre egitea eta zoriontsu izateko aukera izatea, berez, autozainketa da guretzat. Bat-batean asaldatzeko ikara izatea, kortexe batean indarrez sartzeko beldur edota bortxatua izateko beldurrarekin ibiltzeak guztiz estresatzen zaitu. Gauzak horrela, batzen garen guztietan besarkada kolektibo batekin hastea gustatzen zaigu, indar eta maitasun osoz emandako besarkada bat da. Gutariko bakoitzak bere rola dituen. Izan ere, bakoitzak bere nolakotasun propioa du, espazioari edertasun hori eskaintzen dion gaitasuna, alegia. Aire garbitzeko helburuarekin, intentsua jartzen dugu uneoro tokiaren erdigunean. Nahiz eta jardunaldi astunak izan, eztabaida edota mahai-inguru sakonekin, erlaxazio espazioetara jotzen dugu amaitzean, non denon artean behar bezala askatzeko, barre egiteko edota biluzteko ariketak dinamizatzen ditugun.

Banaka, lan oso gogorra da. Ia egunero egokitzen zaigu hildakoren bat aurkitzea edo gorpuak mugitu behar izana.

Nire kasuan, asabean harrietara jotzen dut, energiak berrindartzeko nire gunea da. Bertan nire amonarekin batzen naiz berriro ere eta lurrarekin dudaren harremanarekin bat egiten dut, bere solasaldi etengabeekin batera. Bakoitzak bere mekanismo propioak garatzen ditu horrelakoetan nire ustez. Guztiok ditugu gure krisi uneak, non ez dakigun zer egin gure bizitzarekin erabat lur jota zaudelako. Baina, orduan, ohartzen zara gaizki sentitzen zarenean, eta une latz batean murgilduta zaudenean, edozein kide deituta jarraian etorriko dela bere laguntza eskaintzera. Beraz, autozainketa norbanakoaren lana da bai, baina aldi berean talde-lana ere bada. Horregatik, batera gaudenean, elkar besarkatzen eta maitatzen saiatzen gara.”

BERTA ZÚÑIGA

HONDURAS

“COPINHeK, beste zenbait erakundeekin elkarlan sareak sortzeko aukera izan du eta baita osotze eta sendotze arloetan zehazki lanean diharduten emakumeekin ere, orotariko ikuspuntu eta joerak dituztenak. Komunitate indigena zein beltzen eskutik jasotako laguntza guzti horrek asko lagundu izan digu gure gorputzak sendotu eta osotzeko, prozesu honen baitan pairatu behar izandakoari berriro ere aurre egiten jarraitu ahal izateko.” heldzean, dena dagoen tokian utzi eta hausnartzeko unea heltzen da orduan.”

SUYAPA MARTÍNEZ

HONDURAS

“Gure buruak zaintzea, autozainketa alegia, oso zaila bilakatu da uneoro, nekez lortzen dugu behar bezala deskonektatzea. (...) Hala ere, oso lan gogorra suertatzen zait maiz, nahiz eta horretarako prest egon, barneak erabat mugitzen dizkiguten egoerak baitira. Sarritan, gure buruak beste tokietara eramaten saiatzen gara, benetan egoera jasanezinak direlako. Gu, gizaki gisa, hainbat gorputzez osatuta gaude eta hauetako bat nekatzean, ondorengo bat aurkezten da, eta ondoren beste bat... baina zenbait kasutan gorputz horiek denak erabat ahulduta daude. Egoera horretara heldzean, dena dagoen tokian utzi eta hausnartzeko unea heltzen da orduan.”



AURELIA ARSÚN

HONDURAS

“Gure arbasoetatik zuzenean jasotako barne indar bat dugu. Horri esker, gutxi gorabehera, sendabidea aurki genezake baina, hala ere, ezin genezake esan osasuntsu sentitzen ditugula gure bihotz edo gorputzak. Ez da batere erraza entzutea kide bat hil dutela defendatze hutsagatik. Gure laguna den Karen kartzelatan ari direla entzutean adibidez, edota Armenia eskualdean dagoen Carolina Castillo kidearen kasua entzutean, garifunaherriaren emakumerik epaituena bilakatu dena jada, 14 epaiketa eta demanda dituenak bere gain hain zuzen. Herri honetan bizi ditugun kezkek ezin zaituzte osasuntsu mantendu inola ere. Bizirauten ari gara, erresistentzia hutsa bilakatu gara. Hala ere, gure tresnak eraiki behar izan ditugu. Espiritualtasunak asko lagundu izan digu betidanik herri gisa, horregatik luzatzen diegu mezu hau gainontzeko herri indigena guztiei: beren espiritualtasunari eutsi diezaiotela. Horrek, une latzak zertxobait leuntzeko aukera eskaintzen digu bai, baina ez ordea behin betiko sendatzeko, tamalez.”

TANIA MARÍA IDEN

HONDURAS

“Nire aburuz, gurea denaren alde borrokan jarraitzea litzateke sendabiderik hoberena. Mezu hori komunitate garifunaguztietara eramaten saiatu izan gara betidanik, gazteria osoari. Nire eskola OFRANEHizan da beti, irakasteari uzten ez dion eskola da hau. Ez zaitez hain erraz erori, baina erortzen bazara, jaiki eta borrokatzen jarraitu behar duzu.”

LOLITA CHAVEZ

GUATEMALA

“Bizitza eta lurraren defendatzaile izateak ezagutza eta gauza positibo ugari eskaintzen ditu baina, aldi berean, oso zailak diren testuinguruetan ere kokatzen zaitu, erabat mingarriak direnak. Nola egin diezaiekegu aurre hain gogorrek diren errealitate guzti horiei? Nola zaindu genezake gure bihotza horren aurka?”

Nik, hainbat eraiketa saiakera jasan ditut. Oso gogorra da hori, sekulako bizitasuna dugulako gainera. Duzun bizitasun hori erasotzea, horren alde burututako adierazpen baketsu eta demokratiko soil batengatik, oso latza da, zeharo gogorra. Une horietan barne indar guztiak atera behar dira, horretarako zureak dituzun inspirazio iturri guztiak baliatuz.

(...) Orduan antzematen duzu munstroa zure aurrean duzula eta militarrez josia dagoela, armak dituela, dronak... Zu kontrolatu eta hainbeste ikaratzen zaituen guzti horiez beteta dagoela. Gu, herri gisa, eman diren gerra guztien gainetik, oraindik hemen jarraitzen dugu. Gaur egun bizi dugun egoera aldatu beharra dago, noski. Gutariko asko eta asko biktimizazio horretan geratu dira, eta hori oso mingarria da, ez duzulako zure gorputza inoiz behar bezala osatuko.

Nik argi daukat osatze horren beharra, lehen pausua litzateke. Gure amonek, suaren inguruan dugun inspirazio iturri horretan, behin eta berriz errepikatu izan didate gauza bera: “Zu ez zara martiri bilakatuko. Ez dugu hildako gehiagorik nahi, hildakoak garaituak dira, eta hildakoek ez dute inolako hedapen gaitasunik. Dagokizun unean hil egingo zara, ez militar batek dionean.” Nik hori oso barneratuta daukat eta zaindu egin behar dut nire burua. Adierazpen horiek ere indar handia eskaintzen dute aurrera jarraitzeko.



Beraz, guk planifikatu egin dugu eta hor gaude hurrengo pausuak aztertu eta gainditzen. Erasoak dator, noski. Meatze-lizentziak, baso-lizentziak, goi-tentsioko kable-lizentziak, meatzaritza hidroelektrikoarekin loturak dituztenak... gelditzen saiatzen ari gara. Hau da, ez da pasatzen utzi nahi izan ez dizun soldadutxo bat geldiaraztea, gobernuen ustelkeriaz baliatu izan diren enpresa multinazionalen aurre egiten ari gara. Sarraski militarrek edota narkotrafikoak inpunitate osoa lortu dute eta, orain, nahieran dihardute gure lurraldeetan. Nola egiten dugun hau? Ba gure baliabide propioekin: errituekin, antolaketan, komunikazio eta planifikazio komunitarioarekin, batzarrak eginez, lurraldearen defentsarekin, musika eta dantzarekin..."





AHIZPATASUN INTERNAZIONALISTA

ELKARRREKIN.

ITXARO

PENA

E
T
A

INDARRA GARA

ELVIRA MADRID

CHIAPAS

“Guzti horrek sendotzen gaitu, entzuten eta hausnartzen ikastea. Sexu-langileen Sare Mexikarraren kasuan, urtero topagune bat egiten dugu. Orokorrean, topaketa hauek, arazo gehien dituzten eremuetan izan daitezen saiatzen gara, asko laguntze baitu beste pertsona batzuen istorioak entzun eta ezagutzeak. Izan ere, oraindik antolaketa prozesu hauetan hasten ari direnak, urteak eta urteak daramatzatenak entzutean, gauza bera errepikatzen dute: “Nik ere hala hitz egiteko gaitasuna izan nahi dut; pertsona hori ezagutu nahi dut; bere bezala lanean aritzeko irrikan nago”. Horrela, lan eta konpromiso hori indartu eta sendotuz doa apurka-apurka.

(...) Hau guztia hasi genuenean, orain 30 urte, jakin bagenekien honek kostu bat ere bazekarrela. Erailketak, jipoiak, bahiketak, desagerpenak, mehatxuak eta abar luzea ziren ordaindu beharreko zerga hori. Baina, nire ustez, borroka guzti horrek biltzera eramán gintuen eta, orain, indartsuagoak gara talde gisa. Adibidez, gutariko norbait zuzengabekeria baten ondorioz espetxeratzean, denok lana bertan behera utzi egiten dugu, lankide horrek askatasuna lortu arte. Gauza bera hilketen kasuan, desagerpenekin... Ikaragarria da pertsona baten ingurukoek ezer ez jakitea egun batetik bestera, beldurgarria

guztiz. Mexiko herrialde oso bortitza da gaur egun, horregatik guk geuk zaintzen ikasi behar izan dugu eta bata bestearen burua babesten ere. Autodefentsa tailerrak sustatu ditugu eta baita segurtasun protokolo propioak sortu ere. Agian, horrek bizitza beste modu batean ikusteko aukera ere eskaini izan digu, maitasun osoz. Nire ustez, une hain latzak igaro dituzunean eta hainbat eta hainbat lagunen erailketak lehen pertsonan ikusi dituzunean, maite dituzun pertsonak galdu dituzunean, borrokan aritu eta oraindik ere bertan tinko dihardutenak... horrek sendotu egiten zaitu bai ala bai, nahitaez.”



MORENA HERRERA **EL SALVADOR**

“"Zer suposatzen zuen emakume izateak garai eta une hartan?" Hori izan zen abiapuntua. Batzuk gerrillan eta beste asko herri mugimenduetan arituak ginen jada, nahiz eta jatorri ezberdinak izan, denok mugimendu ezkertiarretan ibiliak ginen. Guztiok istorioa latzak genituela konturatu ginen, emakumeenganako jazarpen eta baztertzearekin lotuak zeudenak, eta zeharo errepikatzen zirenak askotan. Egun osoa eman genuen galdera berari buelta-ka.”

“Mugimendu feministaren parte sentitzen naiz, oso harro sentitzen naiz gure buruak hezteko eta eredu berriak eraikitzeke lortu dugun espazioaz. Gainera, neska gazte ugariz osatua dagoen mugimendua gara eta, horrek, zeharo hunkitzen nau. Itxaropen handiko proiektua dugu abian. Amona naiz, 23 urteko biloba bat dut, gure ildo beretik datorrena, eta baita ia 14 eta 8 urteko beste bi gehiago ere; lau alaben ama naiz baita ere. Haiekiko nolabaiteko konpromisoa hartu dudala esatea gustatzen zait, beste mundu bat eskaini ahal izateko eta behar bezala bizi eta goza dezaten, baina baita borrokatzeke eskubidea izan dezaten ere.”

LOLITA CHÁVEZ **GUATEMALA**

“Gu, emakume mayak, kolonizazio prozesu horren eredu ere bagara, jasandako biolentzia mota ezberdinen adibide garbiak hain zuzen. Sarraski bortitza eman zen bai, baina baita feminizidio itzela ere eta, orokorrean, Guatemalan aipatzea ahaztu egiten dena gaur egun. Feminizidio hori salatzeak beste lurraldeetako kolektiboekin ere harreman berrien sorrera ahalbidetzen du, ezin baikara testuinguru horretan isolaturik mantendu. Biolentzi testuinguru horretan bizi gara eta oso gertu dugu gure arbasoek jaso izan zutena, horrek asko baldintzatu izan baitu gure bizitza, beraz, derrigorrezkoa dugu zauriak ondo sendatzea. Harreman estua dugu gure jatorrizko errituekin eta, zorionez, horrek indarberritu eta sendotu egiten gaitu baina, hala ere, oraindik ere asko dago sendatzeke. Guatemalan eta Bolivian, esaterako, feminismo komunitario horiek bidea egiten ari dira eta, esango nuke, gainontzeko beste herrialdeetan ere gauza bera gertatzen ari dela. Goraintziak emango nizkioke munduko emakume feminista guztiei, Kurdistaneko feministei, hemendik haratagoko beste feministei...”

ZULEYMA ARAUZ EL SALVADOR

“Las 17 y más ekimenaren kasua oso interesgarria da, izan ere, hasiera batean abortuaren kontra zeuden emakume ugari bere baitan elkartzea lortu du. Edonori gerta dakigukeen arazo bat dela ohartuz joan dira apurka-apurka, Mexiko ala Miami abortatzera joateko dirurik ez dugun edozeini. Orduan, espetxean dauden emakume horien lekuan jartzeko ahalmen hori garatu dute behintzat, eta hori oso berri ona da guretzat. Emakume horiekin egiten dugu guk lan, inoiz haien buruak abortuaren aldeko manifestazioetan edota kaleetan beste emakume batzuk defendatzen ikusteko gai izango ziren horiek. Kontzientzia piztea lortu da eta horrek

arrakasta handia suposatzen du gure lane-rako. Beraz, ez soilik guretzat, gure seme-alaba eta bilobentzako ere egoera ez dela batere ona aintzat har dezaten lortu dugu. Giza eskubideen defendatzaileak inolako babesik ez dugun herrialde batean bizigara, ezta juridikorik ere. Hala ere, kalera irteteko eta gainontzekoen alde borrokatzeko bidea hartu dugu.

Beste kideekin bat egiteko aukera izatea, abian jartzeko eta sare sozialen bitartez kanpainak egiteko aukera izateak ekimena ahalik eta kolektiboagoa bilakatzeko aukera paregabea eskaini digu. Borroka honen hazkundearen parte izatea.”





MARLENY CONCEPCIÓN RAMÍREZ GUATEMALA

“Baliabide guztiak ditugu eta elkarrekin aurrera egiteko gonbita egiten diet. Ikuspegia zabaltzea eta gu ere erabakietan parte hartu dezagun, gu ere gobernatu dezagun, botere espazio horietara hurbildu gaitezen, alegia. (...) Munduko edozein tokian bizi diren maya, mam, kiché, kakchiquelanoi-arrebei deia luzatzen diet gurekin bat egiteko. Zuok eta guk, eskutik helduta, benetako aldaketa bat bideratu dezakegu behingoz. Bidea luzea dela ere badakit, baina ezinbestekoa suertatzen da denon laguntza izatea. Aldaketa hori ez da egun batetik besterakoa izango, ez, prozesu bat izango da eta, batez ere, gure ondorengoek bizi izango dituzte ziurrenik. Elkartasuna da, beraz.”

STACY VELÁZQUEZ GUATEMALA

“Komunitate propioa sortzea lortu dugu, asko kostatu zaigun arren. Guatemalaren kasuan, esaterako, LGTBI kolektiboa badugu bai, baina ez nuke esango benetako LGTBI komunitate bat dugunik. Kolektibo beraren baitan dugun matxismoa errotik atera behar dugu, non pertsona gay aberats batek emagalduta txiro den kide batek jasandako diskriminazioa berea ere senti dezan. Orduan bilakatuko gara komunitate oso bat.”



OLGA CORONADO

GUATEMALA

“Guatemala herrialde multietnikoa da, eleaniztuna, kulturantzuna eta plurinazionala. Lau herri bizi gara elkarrekin: gari-funak, xinkak, ladinoak eta herri mayak. Ez dugu itxaropena galtzen herri originario gisa. Duela 500 urte baino gehiago inbaditu gintuzten, eta agian 500 urte gehiago igaro beharko dira, baina ez dugu inolaz ere amererik emango. Ziur aski, mundu mailan, beste askok pairatzen dituzte gizarte-arazo horiek ere, eta ziur asko ere, ez dute borrokarako itxaropenik galtzen. Ez dute nortasun ezta sentimendu hori

galtzen. Batu ditzagun gure indarrak.

Nire ustez, herri indigenak garen heinean, dugun bizitza ulertzeko eta antolatzeko modu propio horri bizia emateko unea heldu da, horrek bakarrik lagun gaitzake. Eta, une honetan, beste herrialde batzuetako anai-arrebei ere eskatzen diet oinaze hau berea egin dezaten. Horren beharra dago, beraz, nahitaezkoa da denok elkartzea, ez bakarrik herri indigenak, baita herrialde osoak ere. Mexiko, Guatemala, El Salvador edota Hego Amerika bera ere kaltetuak izaten ari dira. Indarrak batzea da geratzen zaigun bide bakarra.

(...) Planteamendu horiek berreskuratu behar ditugu berriro ere, hori baita ahaztu duguna. Egun, Ama Lurrarekin genuen harremana galdu egin dugu eta, horren ordez, tramankulu teknologiko zatar horiek zeharo harrapatu gaituzte. Euri azpian ibiltzea ahaztu zaigula dirudi. Hori baita bizitza. Jomuga berri hori aurkitu behar dugu, eguzkiaren izpi berri horiek alegia, biharko eguna loratuko dutenak. Guatemala hori ikusi behar dugu, Erdialdeko Amerika hura, Europako hainbat herrialde, iparraldekoak zein hegoaldekoak. Azkenean topo egin behar dugu, arazoez elkartu egin behar gaituztelako.”



YASMÍN LÓPEZ

HONDURAS

“Antolaketak indartsuago izaten laguntzen gaitu eta mugimenduak aurrera egiten irakasten digu, egunero sortzen dugu elkartasun hori. Gure eremu eta espazioetan apurka-apurka bidea eginez. Edozein tokian batzen bagara ere, bertan elkartasuna sustatzen saiatuko gara. Gure sentipenak eta borroak batu ezean, nekez egin ahal izango dugu aurrera. Baina bat egiten dugunean, indarrak batu eta edozein oztopo gainditzeko gai gara. Zilegi baita beldurra izatea baina, aldi berean, guztiz zilegi bada ere honen gainetik pasatzea.”

“Niretzat, antolaketa, eratu dugun familia handi baten antzerakoa da, denon artean eraiki duguna prozesu honen baitan eta hainbeste irakasten diguna egunero, gure unibertitate propioa da. Hausnarketarako espazio hauek eduki ezean, nik uste gure kontzientziak ez liratekeela berberak izango. Arnasa hartzeko, hitz egiteko eta gauza berriak sortu edota eraldatzeko askatasun horrek asko osotzen gaitu, dudarik gabe. Gure albokoak sentiarazten duena antzematen laguntzen digu.

(...) Erabateko bortxaketen errealitate honetan, emakumeok oraindik ere amets egiteko gaitasuna izatea, izugarrizko lorpen bat da niretzat. Izugarrizko zorrea dugu gure lurraldean, haien ideologia hain argi duten eta bizitza defendatzen duten emakumeak izaten. Hori, guretzat, opari bat da.”



LOLITA CHÁVEZ

GUATEMALA

“Nik ez dut inolako erregistro historiko soil bilakatu nahi. Nire herriarekin batera duintasun osoz mugitzeko aukera izan nahi dut eta, haiekin ezin badut ere, beste herriekin batera behintzat. Gure amonek beti esan digute ez dugula mugarik izan, beraz, nik eskubide osoa dut beste herri batzuekin eskutik ibiltzeko. Sare hori erai-ki dugu historikoki. Nire lurraldetik kanporatu ninduten indarrez, hain modu koldarrean ni hiltzen saiatu zirenak, izorratu daitezela orain. Ekintza horiek guztiek gehiago indartu baino ez gaituzte egin. Izan ere, horri esker, hemendik harago herrialde asko ezagutzeko aukera izan dut zorionez, haiekin sare sendoak sorrarazteko denon indarrari esker. Orain, nire herriak ere elkartasun hori jasotzen du, nahiz eta ni bertan ez egon, haiekin harremanetan nago. Beste lurralde batzuetatik mugitzeak bertan burututako lehiak gureak ere egiteko aukera eman digu.”

CATALINA HERNÁNDEZ

HONDURAS

“Guk, batak besteari ematen diogu indarra, gainontzeko pertsonak gu geu sendotzeko duten ahalmena defendatzen dugu. Lagunek, kideek edota erakundeek indar hori transmititzeko gaitasuna dute, eta gure iturri nagusiak dira. Horri esker, norberak, espiritualki oso indartuta nabaritzen du bere gorputza. Hala ere, kasu gorrenetan, kide bat hilda aurkitzean esaterako, normala da beldur izatea eta zure burua babesgabe sentitzea, erabat etsituta akaso. Orduan, indar guztia ateratzeko unea da, jakin badakigulako egiten ari garen lehia hori guztiz bidezkoa dela eta gure ondorengoek bizitza zertxobait errazagoa izateko dela. Hildako gure arbasoen espirituen indarrak gidatzen gaituzte borrokan jarraitzeko. Baita hainbat erakundeek eta emakumeek eskaintzen diguten haien elkartasun mugagabeak, bai herrialdean bertan zein atzerrian. Haien hitz politek adorea ematen digute lanean jarraitzeko, guztiok amankomunean dugun borroka horri aurre egiteko.”



BERTA ZÚÑIGA
HONDURAS

“Argi eta garbi plazaratu dezakegun ondorio bakarra, nire iritziz, honakoa da: talde-lanarekin egin dezakegu bidea soilik.”






AMESTEN DUGUN MUNDUA

SORTZEAR

— DAUDEN —

ERREALITATE

BERRIAK



CLAUDIA VÁZQUEZ

CHIAPAS

“Munstro basati eta izugarri horren aurka lehiatzen hasteko, gure buruak parekotzat hartu behar ditugu lehenik eta behin. (...) Jokaera indibidualistak erabat hautsi eta kolektiboki lan egiten hasi behar gara. (...) Lan kolektibo hori sustatzea eta indartzea da guk nahi duguna, komunitatearen espiritu hori berriro gurera ekarriz. Komunitateetan ere, hori baita egin dezakegun ekintza bakarra gure gainera datorkigun prozesu oso horren aurka borrokatzeko.

Ezberdintzen gaituena errespetatzea eta, aldi berean, parekotasunean oinarritutako mundu berri bat eraikitzea da garrantzitsuena. Emakumeak ezkutatuak edota errugabetuak izango ez garen errealitate bat, baizik eta askatasun osoz gure eskubideak aldarrikatzeko eta gozatzeko aukera izango dugun mundu berri bat, alegia.”

MORENA HERRERA

EL SALVADOR

“Eskubideak defendatu behar ez diren mundu bat nahi nuke nik. Horiek pertsona guztientzat aitortuak eta errespetuzko eta bidezko bizikidetzan bizitzea. Emakumeok askatasun osoz gure bizi proiektuak definitu ahal izatea gustatuko litzaidake, amatasuna aske eta osotasunean bizi ahal izatea, eta ez ezarritako amatasun bat. (...) Emakume zein gizonezkoak errespetu osoz biziko garen mundu bat dut nik buruan. Gure oinarritzko eskubideak berez aitortu eta bermatuak izan daitezten, inork ez bereak diren eskubide hauek lortzeko borrokatu behar ez duen mundu bat. Emakume, gazte zein gizon, bere ametsak sortu, zehaztu eta, azken finean, lortzeko ahalmena izan dezaten.”

ZULEYMA ARAUZ

EL SALVADOR

“Utopikoa izan daiteke agian, errepikakorra ere agian, baina nik emakumeak behar bezala errespetatuak izango diren mundu zoragarri batekin egiten dut amets, esan eta inposatu digutenaz haratago begiratzeko ahalmena izango duguna. Proposatutako guztia lortzeko gaitasuna izan genezaken errealitate hori, baliabide eta ezagutza propioak erabiliz, eta ez diezaiztela haien ametsi inolako hesirik jarri. Emakumeenganako biolentziarik gabeko mundu batekin egiten dut amets ere, noski.

Nik ikusiko ez banu, gure atzetik datozen neska guztiek ezagutzea gustatuko litzaidake. Zein ederra litzateke... eta nik uste lortuko dugula egunen batean. Haziak ereiten ari gara eta hasiera batean amets bat zirudien hori lortzeke gaude. Defendatzaileak ezer babestu behar ez luketen mundua imajinatzen dut, naturaren zaintza gauza arrunta izango den egun hori, emakume batek haurdunaldia eten ahal izatea normala izango den egun hori. Ez dut uste eskuraezina den ametsa denik, posible dela guztiz konbentziturata nago.”

YASMÍN LÓPEZ

HONDURAS

“Nire ametsa mundu libre bat da, emakumeak askatasun osoz kantatzeko aukera izango dugun mundua, edonolako murrizketarik gabe edota kaletik seinalatuak izateko beldurrik izango ez dugun mundua. Inolako biolentziarik edo bidegabekeriarik gabeko emakumeak izatea behingoz. Badakit ikuspuntu oso erromantiko bat dudala. Guztiok elkartuta, gizon eta emakume, benetako mundu justu berri bat eraikitzeko gaitasuna dugula uste dut. Gure ingurugiroarekin askoz errespetuzkoagoa litzatekeen hura, Ama Lurra zein Pachamamarekin erabat adeitasunezkoa izango dena. Beraz, nire ametsen baitan amestu egiten duten emakumeak ere leudeke, haien espazio eta bizipen propioak sortuz. Elkarren ondoan borrokatzea eta bidea egitea, bizitzaren alde apustu egitea da, beraz.”

SUYAPA MARTÍNEZ

HONDURAS

“Pobreziarik gabeko mundu bat, feminizidioen pobrezia alegia, emakumeak aukera berberak izango ditugun mundua, baina sistema neoliberal honetatik ahalik eta gehien urrunduz. Berez, gure desira beste sistema bat litzateke, benetako justizia soziala ezartzeko gai den sistema berri bat.”

MICAELA

HONDURAS

“Nire ametsa beldurrik gabe bizitzea da, nire kabuz erabakitzeke eskubidea izatea. Zoriontsu izatea eta ozen eta garbi esan ahal izatea zoriontsua naizela. Ez soilik honelako espazioetan, baizik eta zoriontsu izatea bizitzeko egun eta toki guztietan. Irribarre zabal batekin esnatzea egunero, ez dadila herrialdea bertan behera erori esku bete husten ari diren bitartean, eta geure buruak defendatzeagatik hiltzen gaituzten aldi berean. Amets hutsa da, utopia bat. Gutariko bakoitzak, bere baitan, mundu ideala irudikatzen duela uste dut eta labur-labur geratzen gara askotan hitzetan deskribatzen. Ostadarrak, izartxoak edota adarbakarrak egon beharko lirarteke nonahi hegan, baina ez da hala. Gustatuko litzaidake ohetik altxatzea eta urtarriletik uztaileira 349 feminizidio egon direla dioten zifrak irakurri behar ez izatea. Zoriontsu izatea eta ez negar malkotan hastea albisteei begira jartzen naizen bakoitzean. Berta hil zutenean, emakume guztiek, mugimendu feminista osoak, negar egin genuen elkarrekin.”





MARÍA DÍAZ GUTIÉRREZ

CHIAPAS

“Mundua, niretzat, guztiz askea izatea da, gizon zein emakume, baina aske azken finen. Aske izate horrek guk libre izateko eskubide horren alde lan egingo dugula adierazi nahi du, gobernu ez da etorriko hura eskaintzera, guk geuk sortuko dugu. Aske izate horretaz hitz egitean, gizonen, emakumeen, haurren... guztien ari gara. Askatasuna nahi dugu, bakea. Denok tokia izango dugun mundu desberdin bat nahi dugu. Ez dugu gure erakundea aztoratzera inor etortzerik nahi edo bere burua agintari izendatzera etortzea. Gure eskuekin eraikiko dugun mundu berria izango da.”

CARMEN ISABEL ÁLVAREZ

HONDURAS

“Urteen zamek pisatu eta min egiten dute, baina, hala ere, borrokak jarraitzea nahi dugu. Gure arbasoena bezalako errealitate bat nahi dugu, baketsua, lasaia. Mundu hori nahi genuke gure seme-alabentzat, bilobentzat, birbilobentzat... eta atzetik etorriko direnentzat. Indarkeriarik gabeko mundua da nahi duguna.”



MARIXELA RAMOS

EL SALVADOR

“Borrokatzegatik eta bizitza defendatzeagatik hil ez gaitzen nahi dut nik, horrelako mundu bat nahiko nuke. Hau lortu ahal izateko gidaliburu bat izatea gustatuko litzaidake, baina tamalez ez da hain erraza. Lurra, ura edota euren herriak defendatzeagatik emakumeak erailtzen ez dituzten mundu bat, Berta Cáceres hil zuten antzera, hain oinarrizkoak diren eskubideen alde borrokatzegatik. Jazarriak izango ez garen mundu bat, behin betiko defentsiban bizitzeari uko egiteko, egun egiten ari garen guztia bertan behera utzi genezaken errealitate bat. Nahiz eta negarrik egin gabe kontatzen ikasi, malco ugari bota izan ditugu; nahiz eta beldurrik gabe kontatzen ikasi, asko sufritu izan dugu. Libre eta nahieran gauzak egiteko aukera izango mundu bat, jazarriak izan gabe, erailak izan gabe. Hainbat eta hainbat emakumek bizia eman dute zoritxarrez...



Baina guk ez dugu inolako kontrolirik. Bizi dugun errealitate erabat patriarkal honek sistema kapitalista gero eta gehiago indartzen du, emakumeak erailtzen dituen sistema bera. Sistema bortitz hau egoera honen larritzearen erantzule zuzena da, betiere estatuen laguntzarekin batera noski.

Dolurik gabeko mundu bat amesten dut. Imajinatu zenbat lan dagoen oraindik egiteke orduan. Puntu horretan defendatzaile asko eta asko guztiz atsekabetu egiten da, osasun arazoak direla medio edota haien familiak utzi behar izaten dituztelako. Sistemak, bere estrategien bitartez, zeharo lanpetuta egotera bultzatzen gaitu, gure osasuna babesten ikasiz eta biolentziaren kontra borroka eginez, gure zoriontasunean pentsatzen egon beharrean.”

STACY VELÁZQUEZ

GUATEMALA

“Guztiz gorrotagarria eta higuingarria den gizarte batean zorionsu izateko borrokatzen dut nik. Trans emakumeei, esaterako, bizitza erdia kendu digute. Gure haurtzarora, nerabezaroa eta gaztaroa erabat lapurtu dizkigute. Ezin izan ginen inoiz neskatxak izan, ezin izan ginen neskatxa trans izan. Debekatu egin ziguten aukera hori. Horregatik, emakume izatera iristen garenean gaztaro hura berriro bizi nahi izaten dugu eta, askotan, umekerietan ibiltzen gara eta arduragabeak bilakatzen gara. Hortik dator bizitza hori lapurtu digutela adieraztea. Ondoren, helduak garenean eta berriro hara itzuli nahi dugunean, ez dugu ez aukerarik ezta astirik ere. Bizitza oso bat eskaini nahi diet hurrengo belaunaldietan etorriko diren nire trans lagun guztiei.”

AURELIA ARSÚN

HONDURAS

“Ustezko "garapen" hori heldu aurretik, testuinguru indigena guztiz desberdina zen, osasuntsua zen, mundu garbi bat genuen. Gure komunitateetan sartu zirenetik, herri indigenen lasaitasuna guztiz galdu zen, garifunekasuan adibidez. Egunen batean itzuliko denaren itxaropena dugu oraindik ere. Erreza ez dela jakin badakigu, baina ezinezkoa ez dela ere argi daukagu.

Gure ezagutzak seme-alabei irakasten badizkiegu, agian haiek amesten dugun mundu hori osatzeko aukera izango dute. Komunitateetan ateak itxi gabe egiten genuen lo, elkartrukean oinarritzen ginen, auzokoak zeozer ez bazuen partekatzen genuen, lurra bera partekatzen genuen... dena. Mundu horrekin amesten dut nik niretzat, baina batez ere nire biloba eta birbilobentzat.”

CATALINA HERNÁNDEZ

HONDURAS


“Bakean bizi den mundu bat nahiko nuke, justizia eta elkartasuna bere osotasunean ematen den mundu bat, alegia. Preso dau-den emakume kide guztiak askatuak izan daitezela, parte-hartze eta erabakitze eskubidea izan dezagun borroka-prozesu horien guztien baitan. Emakume gisa, gure onurako diren erabakiak hartzeko aukera izan dezagun, gure etxebizitzetatik bertatik hasita. Badakigu borroka izugarria eta gogorra ematen dela egunero gure etxeetan. Familietan bertan hasi behar dugu lan hori, ondoren komunitateetara igarotzeko, erakundeetara eta, azkenik, herrialde oso-ra ere. Oso lehia gogorra dugu esku artean, badakigulako guztiz baztertuak eta zapalduak gaudela bizi garen sistema honetan.


Utzi nahiko nukeen mundua, bakea, justizia eta elkartasuna ardatz dituen mundua litzateke. Egunen batean, eraldaketarako, ekitaterako eta parekotasunerako una iritsiko dela espero dut. Emakume gisa libre izan gaitezen behingoz, guztiok, eta parte hartzeko aukera izan dezagun, bizi-sistema ona uztea gure ondoren datozen guztientzat.”

YAMANIK CHOLOTÍO

GUATEMALA

“Lo que buscamos es el buen vivir, donde todos y todas nos podemos relacionar con la naturaleza, porque al final ese el centro. Por ella comemos, por ella vivimos; donde haya una paridad entre hombres y mujeres, en donde todas y todas podamos convivir bajo las mismas condiciones.”





LOLITA CHÁVEZ

GUATEMALA

“Amonek utzi ziguten inspirazio hori utzi nahi nieke nik ere, ez bakarrik k'iché herrian, baizik eta beste herri askotan ere. Bertan nola bizi garen kontatzea, nire arbasoen jakinduria azaldu, haien gorputzak sendatzeko aukera izan dezaketen mundu bat oinordetzan utzi nahi nieke. Bizitzaren sare horretan elkar konektatutakoa. Mugimendu feminista gero eta gehiago hedatu ahal izatea munduan zehar, eta baita adierazpen feminista komunitarioak egotea ere, ez soilik emakumeen partetik, baizik eta lurralde osokoak ere. Gizonezkoak zein emakumezkoak, neskak eta mutilak, talde aniztasun hori dut nik maite, gorputz pluralen adierazpenak, alegia. Feminismoak

bilakatu daitezten etortzeaz dagoen mundu berri horren inspirazio iturri nagusi. Neoliberalismoa erortzeaz dagoen eredu bat delakoan nago, patriarkatua bezala.

Egunero errepikatzen dut gauza bera: “Erori egingo da, nonbaitetik erori egingo da azkenean”. Amets eginarazten nau horrek askotan, eta uste dut patriarkatuari eta neoliberalismoari gutxi falta zaiela bertan behera jautzeko. (...) Hau da nire itxaropenik handiena: patriarkatua erortzen ikustea, eta inspirazio hori bizitzaren sareekin, ama lurrarekin, naturarekin, lurraldearekin eta gure gorputzekin lotzen diren feminismoekin lotuta egotea.”



G U R E A K

— DIREN —

HITZAK

Lolita Chávezen ekarpenekin



ACUERPARNOS

Elkarkidetasuna. Besteengatik adorea jaso eta emateko gaitasuna, pairatzen ditugun zapalkuntza eta bidegabekeri guztien aurrean indartu eta bultzatu egiten gaituena bidea egiten jarraitzeko, gorroto eta norberekeria guztiak alde batera utziz.



ABYA YALA

Amerika termino kolonialista behin betiko baztertzeko helburuz, kontinenteko herri originarioek sortu eta erabilitako hitza, odol biziko lurra esan nahi duena. Panamako gunea herritik jasotako esaera, berez heldua den lurra adierazteko erabiltzen dena.



ANCESTRAS / ABUELAS

Ezagutzaz beteriko emakumeak, bizitzaren eta espiritualtasunaren gidariak. Mayak duten mundu-ikuskeraren arabera, arbasoek gure bizitza eta gorputzak indartzeko ahalmena dute. Gure mundutik urrun egon arren, bidean aurrera egiteko oinarritzko inspirazio iturri dira.



T'ZKAT

Maya K'iché hizkuntzatik jasotako kontzeptua, elkarrekikotasuna adierazi nahi duena: “Zu, ni naiz; ni, zu zara”. Sendatze kosmiko batetik hartuta: “Zu sendatuta, ni ere osatuko naiz; ni sendatzean, zu zeu ere osatuko zara; ni zurekin nago zu ere nirekin zaudelako”. Ez da soilik pertsonen arteko harremanaz hitz egiteko erabiltzen, baita ura, lurra, haizea, eguzkia, sua, hegaztiak, mendiak... bezalako elementu naturalekin ere.







RADIO COMUNITARIA

Komunikabide alternatiboak dira. Komunitateentzako espazio parte hartzaile, kooperatibo, herrikoi, aske eta guztiz independenteak dira. Gaur egun, komunikazio talde handien manipulazioari aurre egiteko ezinbesteko arma bilakatu dira.



VOCERA

Komunitatearen ordezkari izendatutako emakumea, orokorrean bilera batean hautatua. Ibai, baso zein Ama Lurra osatzen duten elementu orenen ordezkaria ere bada. Ordaindu gabe burutzen den herri lana da, oro har.



GÜIPIL FAJA Y CORTE

Herri indigenen berezko jantziak, mayaherriaren kasuan batik bat. Defendatzaile askok, haien jatorri eta identitatearen harrotasun adierazle gisa erabiltzen dituzte.



MILPA

Arto, baba edota ayote(kalabazin) laborantzak batik bat. Labore kolektiboak dira, komunitate osoak hasi, landu eta batu egiten dituztenak. Herri indigenen kontzientzia eta jakiturian oinarritzen dira eta elkartasun, elkarlaguntza eta lan kooperatiboaren eredu argiak dira, baita gizakion eta naturaren arteko harreman natural horren isla ere.



QUE NO TE DE PENA

Erdialdeko Amerikan, bihozmin esanahia ez ezik, pena hitza lotsa adierazteko erabiltzen da. Que no te de pena, beraz, ez zaitez egindakoagatik lotsatu bezalako aipuetarako erabiltzen da.



SEMILLAS CRIOLLAS SEMILLAS ORIGINARIAS O NATIVAS

Lurraren oinordeko zuzena diren haziak, urteetan zehar bertako familiek gorde eta landatu izan dituztenak, transgenikoekin edota elementu kimikoekin inoiz nahasiak izan ez direnak.



CUERPO TERRITORIO

Gorputza gure oinarrizko lurraldea dugu eta, beraz, hura babestu eta zaintzeko beharra dugu. Bakoitzak bere lurralde propioa du, beraz. Ez da gorpu soil bat, hainbat elementuz osatutako osotasun bat da: gorputza, burua, pentsaerak, ezagutzak, espiritueltasuna, sentipenak, erabakiak, jarrerak, indarkeria eza... Gorputzaren defentsa egin beharreko borroka espazioa dugu.



BUEN VIVIR

Ongi Bizitze edo “Sumak Kawsay”, gizaki ororen ongizatea sustatzen duen bizimodua da. Herri indigenen mundu-ikuskeraren oinarrietako bat da, loqlblaklulxaj (kiché), natwaajó (tz utujil) eta ojawabel (kaqchikel), hitz ezberdinak kontzeptu bera adierazteko. Ikuspuntu guztiz kolektiboa da, denak bere baitan hartzen dituen, askatasun osoa eta naturaren eskubideen bermea sustatzen ditu eta pertsona, gorputz, sexu eta herrien erabakitze askatasunak defendatzen ditu. Zoriontasuna eta maitasuna aldarrikatzen dituen jarrera da, hori adierazteko jokabidea edozein bada ere.



TORTILLAS

Artoa herri mayaren elikagai sakratua da eta berarekin eginiko talo antzerako jakiari tortila deritzo. Emakumeek eskuz egiten dituzte oraindik ere eta komunitate guztien oinarrizko elikagaia da, jatordu guztietan hartzen dena.



INTERPELARNOS CON AMOR

Mindu egiten gaituena azaleratzea, aurrean ditugunen kontra hitz gordinak jaurti gabe. Sentiarazten didazuna iraindu gabe adierazten dizut.

IRUDICILEAK

BEA APARICIO

BILBO, 1981

Arte Ederretan lizentziatua. Zenbait erakundeetan eskainitako marrazketa eta kolore irakasle lanak ilustratzaile gisa egin dako lanekin tartekatzen ditu.

Gizarte eraldaketak eta ahalduntzea bideratzeko irudiek eta arteak duten indarrean sinisten du eta, horretarako, tailer indibidual zein kolektiboak ematen ditu Lempicka bezalako taldeekin.

Femgarabat kolektiboaren erdia da, arte grafikoen inguruan ikerketak eta eztabaidak bideratzen dituen emakume taldea, betiere ikuspuntu feminista batetik abiatuta.

EDE Fundaziorako eta Comitato Tre Ottobre elkartetarako lanak egin ditu azken aldian. Lumaltik Herriak sustatutako #Defensoras kanpainaren ilustrazioa ere egin du.

 www.beaaparicio.com

 [lamedusa](https://www.instagram.com/lamedusa)

MYRIAM CAMEROS

IRUÑA, 1978

Arte Ederretan lizentziatua. Ilustrazio Aplikatua graduondo egin zuen ondoren, baita Liburu eta Haur eta Gazte Literatura nazioarteko masterra ere. Horrekin batera, Astrologia Humanistiko ikasketak ere burutu zituen, hortik datorkio, hain zuzen, hainbeste zero eta izartxo marrazteko gogoia.

Bere lankidearen antzera, irudiek gizarte aldaketak sorrarazteko duten ahalmena defendatzen du gogotsu: “Zure burua zu zeu marrazteko gai ez bazara, inork ez zaitu marraztuko”, lau haizeetara lotsa gabe oihukatuz, ezarritako estereotipo horiek behin betiko apurtuz eta denok irudikatua izan gaitezen berriak eraikitzeke helburuz.

Hainbat ilustrazio bilduma eta komiki kaleratu ditu, hala nola, Tierra Trágame, Brúguera Saria irabazi zuena 2019an, edota hain ospetsua egin den La Cenicienta que no quería comer perdices.

 www.dibujandoconlaluna.com

 [myriam_sizigia](https://www.instagram.com/myriam_sizigia)





